

GUaiXe.eus



Sakanako pilota txapelketak txapeldunak ditu



Kirolak >> 13

Calaisko errefuxiatu eremuko bizi baldintza penagarriez eta osasunerako kaltegarriez azalpenak eman dizkigu Juan Pedro Higuero



Sakanerria >> 10



Elkarlanean, elkarrekin

>> 6-7

Joan den urtean langabeziak behera egin zuen

387 langabe gutxiago zeuden **>> 8-9**

Bakaikun erabakitze eskubideari buruzko herri galdeketa

Bihar, 19:00etan, aurkezpena **>> 3**

Unanun ezezkoa obretako hondakinen proiektuari

Gehienak, kontrako botoak **>> 3**

Sakanako irristaketa Topaketak 140 irristalari elkartu zituen

Olatzagutian aritu ziren **>> 12**

Tarima Beltza antzerki taldeak fartsa bat mustuko du bihar

lortia kultur gunean saio bikoitza **>> 15**

Bertsolari berriak plazara



>> 14

ZORION agurrak

Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foru Plaza 23-1 • zorion@guaixe.eus
• Ordainketa, Guaixeren bulegoan edo ondoko kontu zenbakian egin daiteke:
3035 0018 47 0181012564

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!



- Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa
- Balkoien eta terrazaren itxitura
- Kolore guztietako mallorkinak
- Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovenavarra.com • www.dekovenavarra.com

Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia • ALTSASU • Tel./Faxa: 948 468 360 • Telefono mugikorra: 690 641 860



Zorionak Zangotzako txapeldunei!
Etxekuen partez.



Beñat Gomez Maiz
ZORIONAK Beñat,
9 urte eder eta
zoriontsu zure ondoan.



Amets
ZORIONAK AITTUNA
AMETS!! Zein azkar pasatu
diren 15 urte hauek! Zer
moduz eramaten dituzu?
Segi beti bezain jator eta
alaitsu izaten. Askok maite
zaitugu.

ilbeltzak - otsailak 29-5

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.eus

Musika

Opera, kontzertu didaktikoa. Otsailaren 3an, asteazkenean, 18:30ean Irurtzungo kultur etxean. **Musika Eskola.**

Antzerkia

Mikroantzerkiak: Nirea zurea da eta Bladimir eta Nikasko. Ilbeltzaren 30ean, larunbatean, 19:00etan Etxarri Aranazko kultur etxean. **Lorena Arangoa eta Xabier Artieda.**

Falstaff no cree en la otra vida. Ilbeltzaren 30ean, larunbatean, 20:00etan eta 22:15ean Altsasuko Iortia kultur gunean.

Ipuin kontalaria

Zer da berri? Hortz eta galtzerdi. Ilbeltzaren 29an, ostiralean, 19:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

Dokumentalak

Euskal harriaren abd-ak. Otsailaren 3an, asteazkenean, 9:30ean Altsasuko Itsasi euskaltegian.

Zinema

Jai Alai blues. Ilbeltzaren 29an, ostiralean, 21:45ean eta ilbeltzaren 31n, domekan, 20:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

Palmeras en la nieve. Ilbeltzaren 29an, ostiralean, 22:00etan eta ilbeltzaren 31n, domekan, 20:10ean Altsasuko Iortia kultur gunean.

Yoko. Ilbeltzaren 31n, domekan, 17:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.


El desafío. Otsailaren 4an, ostegunean, 19:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

Irteerak

Iruñeko bolatokira. Ilbeltzaren 30ean, larunbatean. Altsasuko Intxostiapunta gazte gunea.

Erakusketak

Altsasuko inauteriak. Otsailaren 2tik 11ra arte, astegunetan 18:30etik 21:00etara eta



Ilbeltzaren 29an eta 31n Iortia kultur gunean ikusgai izanen da.

domeketan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko Iortia kultur gunean.

Hitzaldiak

Euskal harriaren abd-ak. Otsailaren 4an, osteguna, 9:30ean Altsasuko Itsasi euskaltegian. **Hizlaria: Jaime Gelabert.**

Literatura

Juarez en la sombra (Judith Torrea). Otsailaren 4an, ostegunean, 18:00etan Irurtzungo liburutegian. **Irakurle taldea.**

Tailerrak

Fofutxa tailerra. Ilbeltzaren 31n, domekan,

18:00etan Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

Bestelakoak

EH-ko mus txapelketako kanporaketak. Ilbeltzaren 30ean, larunbatean, 16:30ean Irurtzungo Pikuxar euskal txokoan eta 22:30ean, Uharte Arakilgo Marisol ostatuan.

Familia-Mintzakide, jokoak. Ilbeltzaren 31n, igandean, 12:00etan Irurtzungo plazan edo karpan. **Aizpea.**

Nafarroako aurrekontuen azalpena eta hauteskunde balorazioa. Otsailaren 5ean, asteartean, 18:00etan Uharte Arakilgo udaletxean. **Sakanako EH Bildu.**

Deialdiak

Euskal Presoak Euskal Herrira! Ilbeltzaren 29an, ostiralean, Irurtzun, Uharte Arakil, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranatz, Bakaiku, Altsasu eta Olaztin. Hileko azken ostiraleko elkarretaratzea.

Erabakitze eskubidea, herri galdeketauren aurkezpena. Ilbeltzaren 30ean, larunbatean, 19:00etan Bakaikuko udaletxean. **Gure Esku Dago.**

Euskal Presoak Euskal Herrira! Ilbeltzaren 31n, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

Ostiralero
SAIOA
9:30ean

Errepikapenak: 14:00 - 19:00

Astehenetik ostegunera
Metropoli forala
9:00etatik 11:00etara



Gaurko gaiak:

- Tarima Beltza obra berriaz
- Maitane Ezkutariren bisitaren erreakzioak
- Hizkuntza aktibismoaren inguruko tailerra

107.3 FM
beleixe
www.guaixe.eus-en ON LINE

>> Unanu

Unanuk ezetz esan dio obretako hondakinak kudeatzeko proiektuari

Erkuden Ruiz Barroso

Unanuko sorobatean egin nahi den obretako hondakinak kudeatzeko proiektuaren alde edo kontra zeuden galdetu zitzaizen unanuarrei igandean. Herria informatu gabe eta haren iritzia jakin gabe proiektua aurrera eraman nahi izan dutela salatu zuten Ergoiena bizirik plataformako kideek. Igandean egindako bozketan herria kontra dagoela "argi" gelditu zela esan zuen Javier Mozo kontzejuko presidenteak. Sorobatean dagoeneko hondakinak bota dituzte. Eta, horregatik, salaketa Nafarroako Gobernuan eta Ebroko Ur Konfederazioan aurkeztu dute.

Unanuko sorobatean obretako hondakinak kudeatzeko proiektua zegoela jakin zutenean, herria batzarrera deitu zuten. Herri galdetuta egitea erabaki zuten ondoren, izan ere, herria alde edo kontra zegoen jakin nahi zuten; nahiz



Errepideko puntu honetatik gertu egin nahi dute proiektua.

eta erantzuna alde aurretik nahiko garbi zuten. 96 unanuarrek zuten bozka emateko aukera eta 68k haien bozka eman zuten (%70,83). Haietako 66k ezetz esan zuten. Bat obretako hondakinak kudeatzeko proiektuaren alde agertu zen, eta beste batek txurian

bozkatu zuen.

"Herria kontra dagoela argi geratu da", adierazi zuen Javier Mozo Unanuko kontzejuko presidenteak. Sorobatean hondakinak ikusi daitezke, baina sarrera debekatu dutela azaldu zuen Mozok: "sarrera kontzejua da, beraz,

edo sartzeko beste bide bat aurkitzen dute edo ezin izango dute gehiago sartu". Hondakinak kendu behar dituzte eta horretarako baino ez dute baimenik izango. Proiektua "bertan behera" utzi arte ahal den guztia egingo dutela gaineratu zuten. Sinadura bilketa ere egiten ari dira.

Beste ibar proiektu bat

"Aurretik jendearekin hitz egin genuen eta jendea kontra zegoela jakin genuen". Ergoiena Bizirik plataforma ezezkoarekin pozik zegoen. Herria informatu gabe proiektua aurrera eraman nahi izan dutela salatu zuten. "Formak" ez direla egokienak izan azaldu zuten. "Holako proiektu" baterako lekua ez dela egokia zioten: "guk beste gauza bat nahi dugu Ergoienarendako. Naturarekin eta gure inguruarekin zerikusia duen proiektu bat;

abeltzaintza eta nekazaritzarekin zerikusirik duena". Obretako hondakinak kudeatzeko plan-ta jarriz gero, "haien" proiektua bertan behera geratuko litzatekeela azaldu zuten. "Kutsadura handia ekarriko luke. Errepidean trafiko handia egonen litzateke. Zarata, zikinkeria..."

"Ez gaude proiektuaren kontra, baina lekua ez da egokia". Sakanan hainbat industrialde daudela diote, holako proiektu bat mar-txan jartzeko egokiak diren lekuak. Ergoiena "oraindik leku zoragarria" dela diote platafor-matik. "Sakanako birrikak gara". Plantarekin kalte handiak sortu-ko liratekeela adierazi zuten, eta nahi duten "ibar proiektuarekin" bukatuko lukeela. Enpresa pribatu baten irabaziengatik herri oso batek kalteak izanen lituzkeela gaineratu zuten. "Gure etorkizuna baldintzatzen du".

>> Etxarri Aranatz

Asironen Ennecco parkea bisitatu zuen

Joseba Asiron Iruñeko alkatea Ennecco parkea bisitatu zuen astelehenean. Enneccoren egitasmoa martxan jarritzenetik Asiron Ennecco proiektuaren babesle izan da. Gainera, ekimena aurrera atera dadin lanean aritu da eta ari da. Izan ere, Asiron historialaria da eta Erdi Aroko dorreetan aditua da. Parkearen sarreran jasoko den Erdi Aroko dorrea bere ikerketa eta aholkularitzari jarraituz jasoko da.

Asteleheneko bisitarekin proiektuaren aurrerapenak bertatik ikusteko aukera izan zuen. Nafarroa Bizirik fundazioko ordezkari-ta batek eman zizkion azalpenak. Horren aurretik Eneka Maiz Ulaiar



alkatea buru zuen Etxarri Aranatzko Udaleko ordezkari-ta batek udaletxean harrera egin zion. Agintarien liburuan sinatu ondoren guztiek Danbolintxulora jo zuten.

Egitasmoaren berri emateko bilera irekia egin zen Etxarri Aranatzko kultur etxean atzo arratsaldean. Erredakzioa ixterakoan ez genuen haren berri.

>> Bakaiku

Erabakitze eskubideari buruzko herri galdeketa egingen da

Larunbatean, 19:00etan, Bakaikuko udaletxean batzarra deitu dute, herri kontsultaren aurkezpena egiteko

Bakaikun erabakitze eskubidearen aldeko dinamika duela bi urte Gure Esku Dagok antolatutako giza katearekin batera abiatu zen. Herri-dinamika anitza eta parte-hartzailea sortu dute Bakaikun eta Euskal Herrian erabakitzearen alde lan egiteko. Bakaikuko taldeak oinarritzko hiru printzipioren bueltan antolatu du dinamika: herri bat gara, erabakitze eskubidea dugu eta herri-tarron garaia da.

Hiru printzipio horiekin eta "inguruan dituzten pertsonetikiko



Bakaikuarrek Gure Esku Dagok antolatutako giza katean.

begirunez eta era positiboan" lan egin dute erabakitze eskubidearen alde. Hala, azken erabakia bakaikuarren artean ikasturte honetan herri galdeketa egitearen

aldeko sinadura bilketa martxan jartzea izan da. Azken hilabeteak horretan eman dituzte eta jasotako babesak bulkatu ditu biharko batzarra deitzera.



Txooooo!>

JUANLUZENA SAGARDOTEGIA

MAIATZERA ARTE txotx denboraldia zabalik

948 604 571 | 680 652 183 | ODERITZ





Xabier Reparaz Extramiana

astekoa

Denborari bultzaka

Lenny Kravitzen “Where are we running” entzuten dut irratian autoaren azeleragailuaren pedala estuago zapaltzen dudana bitartean. Errepideko seinaleak eta zenbait gidari atzean utzita dagoeneko, eguzkiarekin lehia bizian, lantokiko aparkalekura nor lehenago iritsiko. Gasoila errez, indar biziz kolpatzen du keak asfalto bel-

tza inguruko bizidunak pozoin-tzen dituen bitartean. Kamioi ilara handiek, migratzen doazen bale handien antzera, ortzimuga baino haratagoko lekuren bate-tik etengabe datoz hidrokarbu-rozko laino artean.

Artista afroamerikarrak helarazten digun mezua datorkit burura kotxeko motorra itzaltze-

an. Ardura gehiegi, abiadura gehiegi gure bidean. Neguko hotzak noiz igaroko, udan zain ditugun beroak freskatzeko denborari bultzaka. Lasterketa batean sarturik, bizitzen ahaztu zaigu, hilabete bukaerako soldataren zain. Asteburuaren esperoan, oporrak noiz iritsiko. Konturatzerako jubilazioa, baldin eta iritsi-

ko bada.

Haurrei begira ikasten da azkarraren, bizitzak ez duela asperen bat baino irauten. Haien hazitze azkarrak erakusten digu zenbat denbora eskaini diogun egunerokotasunaren errotarri birrintzailari. Haien aldamenen Lizarragako tunelera igotzeak eta ordubeteko elur festari darion

atseginak, alde batera uzten ditu haizeak aurpegian zartarazten dizkigun izotz frintzen oinazea. Denborari begira egon gabe, beta dugun bitartean egin diezaiozun aurre eguraldi petralari hark eskaintzen digun bizipena gure memoria hauskorrean gorde dadin.

Xabier Reparaz

barrutik kanpora Ilusioa

Aurreko urtearen bukaeran eta urte hasiera honetan, ilusioz lanean jarraitzeko notiziak ugariak izan dira gure bailaran. Nafarroako aurrekontuak prestatzeko epea bukatzeaz zegoelarik Sakanako dendari elkarteak, Bidelagun turismo elkarteak eta Sakan-tzen sareak bilera bat deitu zuten azaroan egoerari buruz hitz egi-teko. Bertan, erabateko adostasuna lortu zen egoeraren irakurke-

tari dagokionez eta plataforma sozial bat sortzea erabaki zen. Honen helburua Nafarroako Gobernuari Sakana 2020 plana estrategikoa diruz eta pertsonez hornitzeko eskaera bultzatzea. Egun batzuk lehenago, eskualdeko alkate guztiek Mankomunitateko lehendakariarekin batera argitaratutako manifestua indartu zuen. Bertan eskaera bera egi-ten zen. Egun batzuk berandua-

go Sakanak izendatutako ordezkariak Nafarroako Gobernuarekin bildu eta ez zen denbora asko pasatu. Manu Ayerdi kontseilariak 250.000 euroko diru laguntza bideratuko zuela esan zuenean, 2016. urtean Sakanako garapen ekonomikoa eta soziala sustatzeko. Egia da eskatutako diruaren herena besterik ez dela baina proiektu batzuk martxan jartzeko nahiko izango da. Berri positiboekin

jarraituz, aurreko astean eta aho batez, Parlamentuak, ebazpen bat onartu zuen, bertan, Sakanako garapen ekonomikoa eta soziala modu jarraian lantzeko ekintzak sustatzea eskatzen zion Gobernuari eta baita ere, Sakanako Plan Estrategikoa bere osotasunean garatzeko beharrezkoak diren baliabideak eskaintzea.

Notizia guzti hauek, positiboak izanik ere zerbait interesgarria

adierazten dute. Behetik gorako presioak bere fruituak ekartzen dituela eta guztion arteko lankidetzara eraginkorragoa izan ohi dela. Erroka asko ditugu aurrean, langabezia, prekarietatea eta oro har gizarte justuagoaren aldeko borrokan sortzen zaizkigun erroka guztiak. Sakanako garapena integrala izango da edo ez da izango.

Abian

hara zer dien

Edan edo beste droga batzuk hartzen badituzu... autoa hartzen duzu?

Hamar gaztetik lauk noizbait alkoholarekin eraginpean gidatu dute, eta hamarretik batek beste droga batzuk hartu ondoren gauza bera egin du.

Datu hauek Mapfre eta FAD (Droga menpekotasunen laguntzarako Fundazioa), 16-30 urte arteko gazteekin egindako ikerketa bate-tik atera ditugu, estatuko 1.000 gazterekin hitz egin ondoren.

Ikerketarekin jarraituz, gazteen erantzunaren arabera, %38,7k onartzen dute edan ondoren autoa hartu dutela, eta beste %10,2k,

beste droga batzuk kontsumitu-ta gidatu dutela.

Datu hauek ez datoz bat gazteek adierazten dutenarekin. Zehazki, gehiengoak dio sustantzien eraginen eta arriskuen berri eta gaiaren gaineko informazioa badutela. Arazoa da ezagutza dutelarik ere, gero erabaki arriskutsuak hartzen dituztela.

Inkestek diotenaren arabera, gazte askok onartzen dute gidaria edanda zegoen auto batean igo direla edo cannabis eta marihuana kontsumitu duten gidarien

autoan noizbait joan direla.

Egoera honetan, beharrezkoa da ideia bat lau haizetara zabaltzea: alkohola edo beste droga batzuk hartu badituzu, ez gidatu.

Datuak argiak dira oso; estatuan gertatu diren istripuen %52tan gidariak positiboak eman zuen alkohola edo beste droga batzuetan.

Beste aldetik, trafiko kanpainak direla eta, isun eta santzio purrutas-tada bat egon da. Baina zentzu honetan isunak eta kontrolak ez dira nahikoak, benetako aldake-

ta heziketa eta sentsibilizazioa-ekin etorriko da bakarrik, desegokiak diren jarrerak eta porta-erak aldatu ahal izateko.

Ulertu behar da oso arriskutsua dela edan edo drogak hartu dituen gidari baten autoan igotzea. Europako zenbait herrialdetan ideia hau oso barneratuta dute gazte-ek zein helduek, gizarte osoak.

Gure zonaldean gazteen artean zabaltzen ari da azken ideia hau, eta urtetik urtera gehiago dira jai-busa edo taxia festa baten ondo-ren etxera bueltatzeko erabiltzen

dutenak. Egoera batzuetan autoa baino desegokiagoa dela uste duten arren, eskerrak eman behar dizkiegu jaibusa erabiltzen eta estimatzen duten gazte-ek. Beste behin, gazte zein heldu, guztiak arduraz jokatu eta bizia arriskuan jarri ez dezaten animatu nahi ditugu. Finean, gauza bat ulertu behar dugu behingoz, arazoa ez dela puntuak kentzea edo ta isuna jasotzea; arazoa, zure bizia eta besteena arriskuan jar-teea da.

Irruzungo Gizarte Zerbitzuak

Guaixe  

ERREDAKZIO BURUA: Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.eus
ERREDAKZIOA: Maider Betelu Ganboa • kirolak@guaixe.eus
MAKETATZAILEA: Ainhoa Etxeberria Pikabea
PUBLIZITATEA: Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.eus
eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.eus
ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK: Maialen Huarte Arano,

Eñaut Agirrebengoa Apaolaza, Larraitz Amadoz Lazkano eta Erkuden Ruiz Barroso

ZUZENTZAILEA: Patxi Flores

ARGITARATZAILEA: Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675

KOORDINATZAILEA: Goizeder Anton Iturralde • fundazioa@guaixe.eus

DISEINU ZERBITZUA: Guaixe komunikazioa • Amaia Amilibia Salgado • argi@guaixe.eus

ADMINISTRAZIOA: Gixane Andueza Goikoetxea • zorion@guaixe.eus

LEGE GORDAILUA: NA-633/1995

TIRADA: 3.200

LAGUNTZAILEAK:

Mank
s a k a n a

BAZKIDEAK 

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hezkuntza Politikako Salburordetza

SAKANA

Euskaldunon hizkuntza aktibaziorako tailerrak

Euskal Herrian Euskaraz-ek (EHE) "euskaldunok bizi dugun menpeko egoera, euskaraz biziz irauli nahi dugu. Horretarako, hutsune nabarmen bat beteko duen tresna berri bat, tailer bat proposatzen dugu". Eragile euskaltzaleko kideek azaldu dutenez, tailerrak "euskaraz bizi nahi eta ahalgina egiten dugun herritarroi hizkuntza praktika sumisoak gainditzeko baliabide pertsonalak eskainiko dizkigu". Azaldu dutenez, "Baliabide hauek kolektiboki landu eta garatzeko, eta bestelako arloetan aldaketak eragiteko, dinamikak eskura jarriko ditugu". EHEk TELP ikastaroen sortzaile Gemma Sanginesekin elkarlanean

an sortu du tailerra eta bera izanen da saioen gidaria.

Eragile euskaltzaleko kideek argi dute hizkuntza eskubideen defentsarako dinamikak beharrezkoak direla, baina "horien garapenarekin soilik ez da nahikoa". Euskararekiko aldeotasuna lortzeko dinamikei balioa aitortuta ere, "bada garaia, jarreretan soilik zentratu baino, jokabide aldaketetan zentratzen hasteko, euskararen alde egotetik euskararen alde egitera pasatzeko".

Hausnarketa

EHEk abenduan *Izan, egin, eragin*. *Euskal Herrian Euskaraz* izenaren hausnarketa prozesu parte-

Ikastaroak

Ilbeltzaren 29an eta 30ean
Altsasun
Otsailaren 12an eta 13an
Txantrean
Otsailaren 27an
Arrasaten
Martxoaren 12an
Durangon

hartzailera abiarazi zuen. Dagoeneko hainbat herritan batzarrak egin dituzte eta hainbat pertsonarekin aurrez-aurreko solasaldiak izan dituzte. Hausnarketa prozesuaren helburua da: "hizkuntza gatazkaren korapiloak askatzeko



Ikastaroen aurkezpena Altsasun egin zuten astelehenean.

gakoak identifikatu eta, haiei ekitako, EHE erakundearen etorkizuna marraztuko duten neurriak hartu".

Gogoetaren oinarrian "euskaldunen aktibazioa" jarri dute. Eragile euskaltzalek azaldu dute-

nez, "sinetsita gaude euskaraz bizitzeko behar ditugun aldaketak norbanakoon zein hiztun komunitatearen ahalduzuekin etorriko direla". Hizkuntza aktibismoarako tailerra ildo horretan kokatu dute.



Gazte hizkera zabaltzen

Euskarak adarra jotzeko, ligatzeko eta haserretzeko... balio duela eta oso adierazkorra dela ikasi zuten Altsasu institutuan abendu akaberran. DBHko 4. mailako 4 geletako 88 ikasleek Ttakun kultur elkartearen *Lagunarteko hizkerarekin jola-*

sean ikastaroa jaso zuten. Tailerraren helburua egoera informalean euskarazko erregistro kolokiala erabiltzea eta hizkuntzarekin jolatu eta ondo pasa daitekeela erakustea da. Bi orduko bi saiotan, batez ere, adarra jotzeko, ligatzeko eta

haserretzeko esamoldeak landu zituzten. Ohi bezala, gairik arrakastatsuenak ligatzearena izanzen. Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak Altsasu institutuko euskara departamentuaren laguntzarekin antolatu zuen tailerra.



Altsasuko inauteria Sakanako turismoa sustatzen

Bidelagun turismo elkarteak Sakanako turismo eskaintza aurkeztu zuen Madrilgo Fitur azokan larunbatean. Ibarreko turismo eskaintza ezagutarazteko aparteko laguntza izan zuten: Altsasuko inauteri batzordeko 28 kide, herriko ihotea nazioarteko turismo azokara eraman zutenak.

Nafarroako standean momotxorroak, juantranposoak, sorginak eta akerrak euren nortasuna azaldu zuten (12:30ean, 17:00etan eta 19:00etan, 20 minutuko saioetan). Haiekin batera, txistulariak, atabalaria eta txalapartariak joan ziren Altsasutik Madrila. Guztien artean, azokaren nazioarteko erakuslehoan, Altsasuko ihotea 2012tik turismo intereseko festa zergatik den erakutsi zuten. Bestalde, Altsasuko ihoteko ordezkariak larunbatean Lizarran izanen dira.

suna azaldu zuten (12:30ean, 17:00etan eta 19:00etan, 20 minutuko saioetan). Haiekin batera, txistulariak, atabalaria eta txalapartariak joan ziren Altsasutik Madrila. Guztien artean, azokaren nazioarteko erakuslehoan, Altsasuko ihotea 2012tik turismo intereseko festa zergatik den erakutsi zuten. Bestalde, Altsasuko ihoteko ordezkariak larunbatean Lizarran izanen dira.



Sorgin beldurgarria. NAFARROAKO GOB.



Inauteri batzordeko kideak elkarrekin. NAFARROAKO GOBERNUA

Hyundai Tucson berria
Aldatzea jarrera bat da

#changeisgood

Aldaketa gure bizitzaren parte da. Sentsazio berriak eta une zirraragarriak aurkitzen laguntzen digu. Iru-dimenaren motorra da. Hyundai Tucson berria jarrera horretatik jaio da. Bere diseinuak eta berrikuntza teknologikoez, gidatzeko duzun gozatzeko modua aldaraziko dizu.

Probatu aldaketaren poterea www.hyundai.es-en

NEW THINKING.
NEW POSSIBILITIES.

AUTO TALLERES SAN MIGUEL S.A.
ALTSASU • 948 562 261 • IRURTZUN • 948 600 657 • www.autsanmiguel.com



Tucson 1.6 GDi (131CV) 4X2 BD ESSENCE (18.900€) Penintsulan eta Balearetan PSP aholkatuta. BEZ, garraioa, matrikulazio zerga, promozio deskontua, konzesionarioaren ekarpena, mantenimendurako eskaintza, Plan Hyundai Solución eta Gobernuaren Plan PIVEa. Eskaintza hau Santander Consumer EFC S.A. ren bidez finantzatzeko duten bezeroendako izango da, gutxienez 13.000€ko zenbatekoarekin eta 60 hilabeteko gutxienezko epea izango duena. Finantzaioa entitatearen ikerketa eta onarpenaren pean dago. Eskaintza 2016/01/31ra arte da baliozkoa. Ikusgai dagoen modelo: Tucson Style. Kotxearen finantzaioari lotuta dago mantenimendua. Eskaintzaren baldintzak eta mantenimendu argibideak Hyundai konzesionarioetan edo hyundai.es-en.

Gama Hyundai Tucson: CO₂ (gr/km) isurtzea: 119-175.
Kontsumo mistoa (l/100km): 4,6-7,5.

» Irurtzun

Familia-Mintzakidek badu egutegia

Euskara praktikatzeko hitzordua zehaztu dituzte, ia hilero bat antolatuz

Familia-Mintzakide egitasmoa Aizpea Irurtzango euskaltzaleen topaguneak irailean jarri zuen martxan. Familia euskaldunendako eta euskalduntze bidean egonda jardueran osoan zehar euskaraz hitz egiteko gutxienezko maila duten guraso eta seme-alabei zuzendua dago. Aizpearen ekimenaren helburu nagusia umeengan haien artean eta baita helduekin ere euskaraz aritzeko ohitura bultzatzea da, eta helduak horretarako eredu izatea. Bide batez, Familia-Mintzakidek euskara ikasten ari diren helduei beste euskaldun batzuekin hizketatzeko aukera ematen die ere. Beraz, Familia-Mintzakiden parte hartzen dutenek, bai gurasoek bai umeek, jardueran zehar euskaraz aritzeko konpromisoa hartu beharko dute.



Aurreko irteera batean parte hartu zuten irurtzundarrak.

Egutegia	Jarduera
Eguna	Jokoak plazan edo karpan
Ilbeltzak 31	Jokoak plazan edo karpan
Otsailak 28	Ibilaldia, Etxeberriko buelta.
Martxoak 20	Gorriti artistari bisita.
Apirilak 24	Sakanako Sortzen jaialdia.
Maiatzak 29	Ibilaldia, Saien behatokia
Garagarzaroak 19	Ibilaldia, Arrantzaleen bidea.
Irailak 25	Zehaztu gabe dago.
Lastailak 23	Euskaraz bizi nahi dut eguna
Azaroa 27	Mahai jokoak

(Ibilbideen egunetan eguraldiak laguntzen ez badu bestelako ekintzak antolatuko dituzte, hala nola, sukaldaritza tailerra edo mahai jokoak).

» Altsasu

Unai Hualde EAJko Nafarroako buru

Altsasuko alkate Javier Ollor Napar Buru Batzarreko kidea izango da

Abenduan hasitako barne prozesuaren ostean, datozen lau urte-erako lurralde batzarrak berri-itu ditu EAJ-PNV alderdiak. Nafarroan Unai Hualde altsasuarrak hartuko du 2012tik egungo Nafarroako

Udalean. Hualderen asmoa "aldaketaren gobernua indartze-ko ekarpena egiten jarraitzea" izanen da. Presidenteaz gain, EAJko Napar Buru Batzarreko %80a berri-itu da. Tartean, Napar Buru Batzarreko kide lanetan estreinatuko da Altsasuko alkate Javier Ollor.

Udalean. Hualderen asmoa "aldaketaren gobernua indartze-ko ekarpena egiten jarraitzea" izanen da. Presidenteaz gain, EAJko Napar Buru Batzarreko %80a berri-itu da. Tartean, Napar Buru Batzarreko kide lanetan estreinatuko da Altsasuko alkate Javier Ollor.

SAKANA

Askapenako kideek Nafarroako talde gehienek babesa jaso zuten



Askapenako kideak eta abokatua Parlamentuan. ASKAPENA.ORG

Aurreko ostiralean izan ziren Nafarroako Parlamentuan

Nafarroako Parlamentuan agerraldia egin zuten aurreko ostiralean Askapenako bost auzipe-tuetatik lauk, Walter Wendelinnek, Dabid Sotok, Unai Vazquezek eta Aritz Ganboa arruazuarrak, Amaia Izko abokatuarekin. Audientzia Nazional-eko auzian izandako egoeraren berri eman zuten, eta auzian "irregularitasunak eta neurri-gabekeriak" jasan dituztela salatu zuten. Epaiketan, ETArekin kolaboratzea akusatzen diete eta sei urteko kartzela zigorra eskatzen diete. Egun, fidantzapean aske daude, epaiaren zain. Askapenako auzipetuek EH Bilduren, Geroa Baiaren, Ahal Duguren eta Ezkerraren babesa jaso zuten. Horretaz gain, ilbeltzaren 30ean aurkeztu eta aurki abiara-ziko duten dinamikaren berri eman zuten Askapenakoek. Epaiketako politikoen kontrako ekimena izango da, eta talde politikoen, instituzioen eta gizarte eragileen inplikazioa eskatuko dute.

Sakanako ordezkariak gobernukoekin bilera

gertutik >>

Alfonso Nuin

Bidelagun turismo elkarte-ko presidentea



Ezkatutari zer esan diozue? Beti nahi izan dugu Nafarroako Gobernu-ko ordezkariak etortzea gure nahiak haiei esateko. Sakanako Plan

Estrategikoko (SPE) turismo arloko zenbait puntu eginak ditugu. Azken urtean, dirurik gabe, gauza pila egin ditugu. Gauza gehiago, handiak egiteko, finantziarioa behar dugu. SPE garatzeko akordioa sinatzeko prest dago. Aurreratze-ko puntu batzuk daude eta zer nahi dugun esan diogu.

SPEko puntu garrantzitsua da Sakanak turismo teknikaria izatea. Finantziarioa sinatzea espero dugu turismo mugituko duen pertsona bat kontratatzeke. Gainera, orain Nafarroako Gobernuak turismo teknikari bat izendatu du Baztan, Plazaola, Sakana eta Lizarra-lderako, Patxi Saenz. Pausu handia da, lehen ez zegoen ezer.

Aurtengo lehentasunak?

Alde batetik, turismo teknikaria kontratatzea. Bestetik, Altsasuko Haritzen ibilbidea. Oso ongi dago, baina jendea joateko gauza pila egin daitezke. Agian, azalpenak eman dituen norbait behar da, gida bat, azalpenak eman eta bisitariak ibilbidea ongi ulertzeko. Horretaz aparte, prestakuntza dago. Guk urtero zerbait egin nahi dugu. Bai kideendako baita elkar-teen ez daudenendako ere. Oso garrantzitsua delako teknologia berriak eta bestelakoak ikastea, aurrera egiteko.

Udalekin lanean ari zarete?

Joan den urtean elkarteko Gemma eta Valen udal guztietako ordezkariekin egon ziren. Turismoa bulkatzeke denok elkarrekin zer egin dezakegun aztertzeke. Zeren batzutan guk, sakandarrak, ez daukagu argi ibarrean zer daukagu. Turismoa ibarrean garrantzitsua izan daiteke. Udal batzuekin ez gara egon.

Zein asmo?

Gutxienez haiek jakitea nor garen, zer egiten ari garen eta, posible bada, haien laguntzarekin gauza gehiago egitea. Lakuntzako, Arbizuko eta Altsasuko Udalekin hitzarmen bana sinatu dugu. Feria eta bestelako ospakizunetan gure turismo informazioa zabaltzeko postua dohainik jartzeko. Azken finean, gure lana Sakana "saltzea" da. Hori egin ahal izateko udalen laguntza pixka bat behar dugu. Aurten Sakanan dauden azoka guztietan egonen gara, joan den urtean bezala. +www.guaixe.eus

gertutik >>

Tania Ganboa

Sakanako Dendari, Ostalari eta Zerbitzuen elkarte-ko presidentea



Zer moduz gobernuko ordezkariekin? Oso ongi.

Zuen elkarteak zein eskaera egin dizkiezue?

Instituzioak Sakanarekin inplikazio handiagoa izateko eskatu dugu. Bestetik, diru-laguntzak eta, horrekin batera, gure prestakuntza. Jendearengana nola heldu, jakin dezaten hemen gaudela.

Haien aldetik zer jaso duzue?

Printzipioz, ikusten dute aukera handiak daudela. Ikusten da orain arte ahaztuak egon garela. Gutxienez, orain, ikusten dugu, baietz, Nafarroako Gobernuak ordezkariak dugula. Nik uste dut haien esku dagoena eginen dutela. Beti kontuan hartuta eskatzen dugun guzti-guztia ez dela posible lortzea.

Eskatzea libre?

Bai, bai, horregatik eskatu dugu!

Aurtengo zuen elkarteak zein asmo du?

Hainbat gauza ditugu buruan, baina ezer itxia ez.

Urte aldatetarekin itxiera eta esku-aldatze batzuk izan dira. Zein da egoera?

Egia esan Sakanako dendari eta ostalarien egoera larria da oraindik.

Egoera larri horren aurrean sakandarrok behar bezala erantzuten dugu?

Ez. Nik uste dut ez garela kontziente zer daukagu. Bilera honetan horretaz asko hitz egin dugu. Sakanan, bai zerbitzuetan, bai dendetan, bai turismo arloan gauza pila ditugu. Eta etxe ondoan zer daukagu ez dakigu. Ez gara kontzienteak.

Aldameneko herria, ezezaguna?

Bai, bai. Baita gure herria bera! Sakana ezagutzen lan handia daukagu.

Zergatik kidetu zuen elkartean?

Denok elkarrekin egon behar dugu, gure ahotza entzun dezaten.

Iñigo Aritza ikastolako ORDEZKAPENA EGITEKO DEIALDIA

ESKATZEN DENA:

LH irakaslea, hezkuntza berezia aipamenarekin eta logopediarekin.

EGA



Nora bidali: curriculumak@inigoaritz.a.eus
Epea: Otsailak 3, eguerdiko 12:00ak

Sakanako ordezkariak gobernukoekin egindako lan bilera

Elkarlanerako, elkar ezagutzen

Sakanako merkataritza eta turismo arloetako ordezkariak eta Nafarroako Gobernuoko arduradunak elkarren berri zuzenean izateko eguna izan zuten asteartean

Eguerdian lan bilera egin zuten Tania Ganboak (Sakanako Dendarri, Ostalari eta Zerbitzuen elkar-

tea), Alfonso Nuñezek eta Daniel Torrentek (Bidelagun turismo elkartea), Iker Manterolak (Sakanako Garapen agentea), Maitane Ezkutarik (turismo eta merkataritza zuzendari nagusia), Margari Cuelik (antolaketako, turismo-ko eta merkataritzako zuzendaria)

eta Patxi Saenzek (gobernuaren herrialdearen mendebaldeko turismo teknikaria).

Bilera horretan sakandarrek, zeinek bere arloan, orain arte egindakoaren, egungo egoeraren eta haien ikuspuntuen berri eman zieten gobernuaren ordezkari.

Haiek, bestalde, dituzten egitasmoen berri jakinarazi zieten. Sakanadarrek azken horien jarrera ona nabarmendu ziguten.

Arratsaldean bilera irekia egin zen eta 30 bat pertsona elkartu ziren. Administrazioaren aldetik han ziren Irañeta, Uharte Arakil,

Arbizu, Etxarri Aranatz eta Altsasuko udal ordezkariak, baita Unanuko kontzejukoak ere. Haiekin batera, Bidelagun elkarteko eta Sakana eta Altsasuko dendari elkarrekin kideak eta Enneco, haritzaren memoria parkeko arduradunak ere.

gertutik >>

Iker manterola

Sakanako garapen agentea

Sakandarron eta gobernuaren asmoak uztartu daitezke?

Bai. Azterketa bera egiten dugu. Puntu askotan erabat bat egiten dugu. Ez da gauza isolatua. SPE akordio orokorraren barruan dauden beste arloak dira hauek.

Turismoan 2016rako zein asmo?
Gure kabuz aurrera eramaten ari

ginen hainbat ekintza txiki Nafarroako Gobernuaren laguntzari esker bultzada izanen dute. Oso garbi dago Albalarekin eta San Joan baleontziaren berreraikuntzarekin, proiektu horri lotuta, aurten dugula aukera horri bultzada emateko. Donostia aurten Europako kultura hiriburua den heinean, hor aukera bat dugu. Orain arte Nafarroako Gobernuaren laguntzarik ez dugu izan. Baina orain ikusten dute gure basoei balioa emateko eta turismoari lotuta kalitatezko eskaintza bat sortzeko. Hori martxan jartzeko

Eusko Jaurlaritzarekin, Gipuzkoako Diputazioarekin, Donostiako Udalarekin erakundeen arteko zein elkarlan mota abian jarri daitezkeen hitz egin dugu. Eta Nafarroako Gobernu proiektu honen bultzatzaileetako bat izan dadin. Elkarlan horretarako prest azaldu dira. Proiektu horrendako bultzada garrantzitsua izanen da. Horretaz aparte, hainbat gauzaz hitz egin dugu. Done Jakue bide zaharrari bultzada emateko bion ikuspuntuek bat egiten dute. Altsasuko Dantzalekuko ibilbidea eta bere inguruan ekintzak egin

daitezke. Bernoako galtzada, basotik itsasorako bidea, baleontziari lotuta, hori guztia nola landu. Enneco, haritzaren memoria parkea. SPE garatzeko akordioan jasotzen dira turismoko lehentasun horiek. Horretaz aparte, hainbat ekintza txiki.

Baita turismo teknikari baten kontratazioa, ezta?

Dinamizazio lanetarako, Sakanako erakargarritasunei forma emateko, nola landu aztertze, eragileen arteko elkarlana bideratzeko, proiektuak bulkatze...

Denden egoera ez da xamurra.

Ez. Kontsumo moldeak aldatzen ari dira. Neurri batean herritarren kontzientzia falta ikusten da. Batek esaten zuen moduan: denda bat itxi arte ez gara konurtzen zein zerbitzu ematen zigan. Landu beharrekoak dira sentsibilizazio eta hezkuntza. Benetan, balioan jartzeko herriari uzten dugun euro bakoitzak herriko ekonomiari zer suposatzen dion. Bestetik, dendan eta turismoaren arteko erlazioa landu beharko da. +www.guaixe.eus



gertutik >>

Maitane Ezkutarik

Turismo eta merkataritza zuzendari nagusia

Sakanako turismo arloko eragileek zein premia jakinarazi dizkizute?

Asko izan dira. Bai turismoan bai merkataritzan premiazko gauzak daude. Gauzak berehala egin eta martxan jartzeko beharra dagoela. Lan hori batera egiteko beharra ere badago. Urte askotan lan hori ez dela egin nabari da. Orain, badirudi, denbora hori berresku-

ratzeko halako presa dagoela. Hori nabari da. Pazientzia pixka bat eskatzea beharrezkoa da. Guk hori dena barnerratu beharra daukagu. Sakanako Plan Estrategikoan (SPE) lehentasunak markatuta daude. Lehentasun horiek aurten hitzarmen batean sartzen dira. Aurten 250.000 euroko konpromisoa hartuta dago. Hitzarmena sinatzeko prozesua martxan dago. Bestetik, turismo teknikari bat jarri dugu, sektorearekin lan egin dezan. Ekintza bihurtu behar duten behar horiek martxan jarri, aurrekontu bat eman eta aurretiko planifikazioan sartu, gurean

eta sektoreak egin dezakeen ekintzetan.

Sakanaz arduratuko den teknikari hori Patxi Saenz da, ezta?
Hemendik aurrera sektorea laguntzen eta aholkuak ematen ariko da. Eragile pribatuek, eta udalek gehien bat, dauden egitasmoak bideratzeko, beste eskualdeekin edo eragileekin sinergiak bilatzeko laguntza behar dutela ikusten dugu.

SPE eta zuen lan ildoak erabat uztartuta daude, beraz?

Bai. Azken urteetan Sakanan egin den lana oso garrantzitsua da. Lan bateratua izan da, jende

askok parte hartu du. Orain gure planifikazioan garbi utzi behar dugu eta aurretiko ekintzak zehaztu. Aurrekontu aldetik ez da urte oso interesgarria. Garapen arloan ez dugu diru gehiegi. Horregatik, aurten lehentasunak jarri behar dira. Hitzarmen hori hainbat urterako izanen da eta, aurrera begira, beste gauza batzuk sartuko ditugula ikusten dugu.

Merkataritza arloa larri dabil.

Oso, garbi dugu. Hemen entzun duguna beste eskualde askotan entzun dugu. Dauden arazoak egiturazkoak dira. Garbi esanda,

guk laguntza eman behar dugu. Gehienbat kanpaina eta komunikazio aldetik. Hezkuntza ildo bat izan behar duela ikusten dugu. Herriari dendak izatea bizia izatea da; jendea horrekin sentsibilizatu behar dugu.

Gaurko topaketaren ondoren, berriak etorriko dira?

Guk egin behar ditugun plan estrategikoetan, turismo arloan gehienbat, eskualdeak bisitatzeko da asmoa. Sakanako hau hortik apartekoa izan da. Sakanakoa berezia delako eta nolabait ibarreko egoerari bultzada ematen ari garelako. +www.guaixe.eus

BILTOKI
TABERNA • JATETXEA

Pintxoak
Bokatak
Plater konbinatuak
Karta

Astelehenetik ostiralera
Eguneko menua
9€

Asteburuetan
Menu berezia 25€

948 467 876 • Altsasu

Ogiaren artisauak

PORTUKO okindegia

ETXARRIARANATZ: 948 460 988
ALTSASU: Denda: 948 563 822 • Lantegia: 948 467 153

HIJOS DE GOIKOETXEA
EDARI BANATZAILEA

Zatoz gure ardotegia ezagutzera!

Geltoki auzoa 11 • Altsasu
948 467 317 • 696 979 279
hijosdegoikoetxea@yahoo.es

SAKANA

Ostegunean Santa Agedari kantatzera

Aizpea, Irurtzango euskaltzaleen topaguneak 18:00etan jarri du hitzordua, plazan. Trikitilariak lagunduta eginen dute kantu jira. Ibilbidea Barazkiguneko karpan bukatuko da. Bertan, azken kantuak eta txistor-jatea izanen dira.

Irintarrak 18:30ean dute hitzordua jarrita. Irañetan barna koplak kantatzen ariko dira, baserriarrez jantzita.

Lakuntzan, arratsaldean, eskola eta ikastolako haurrak aterako dira Santa Ageda koplak herrian barna kantatzera. Puska biltzea eginen dute, meriendarako. Iluntze aldera, kriseiluak eskuan, abesbatza izanen da auzoz auzo Santa Ageda eskean ariko dena, gero afaltzeko.

Etxarri Aranazko abesbatza eta musika eskolako neska-mutikoen, instrumentuak eskuan, Santa Ageda koplak kantatzera aterako



Makilak eskutan, koplak ezpainetan, kantuan ariko dira han eta hemen.

dira Etxarriko kale nagusietatik barna. Bukatzerakoan udalak prestatutako txokolate goxoa datatuko dute estalopean.

Altsasuko musika eskolako fanfarrea, eskolania eta ikasleak koplak kantatzera aterako dira 18:00etan musika eskolatik.

Herrian barna kantatzen ariko dira, ordu bat inguru, eta ondoren ikasleek musika eskolan merienda izanen dute. Bestalde, Erkudengo Ama eta Altsasuko jubilatutako elkarteak abesbatzak ere Santa Ageda martiriaren koplak kantatzera aterako dira iluntzean.

» Urdiain

San Antonek bildu ditu

Mendeetako ohiturari jarraituz Urdiaingo san antondarrak haien babeslearen eguna ospatu zuten

Erkuden Ruiz Barroso

San Anton eguna ilbeltzaren 17an izan bazen ere, Urdiaingo kofradiak larunbatean ospatu zuen haren eguna. Urdiainen 50 san antondar dira. Hildako bat izan da azken urtean kofradian, Pedro Mari Irigoien, eta ez da kide berririk sartu. Larunbatean hildako kofradien omenezko meza egintzen. Elizkizuna despedituta, elizaren atean soroak bedeinkatu zituzten.

Tintinurri elkarteak bildu ziren ondoren, kontuak egunean jartzeko eta karguak berritzeko. Jesus Mariano Zubiria eta Txomin Goi-



San antondarrak soroen bedeinkapenaren lekuko izan ziren. ERKUDEN RUIZ

koetxea, joan den urteko maiordomoek, Ramon Askarairi eta Antonio Galarzari lekukoa eman die. Biek abanderatu eta diruzainaren

lanak elkar banatuko dituzte. Ospakizuna mahaiaren inguruan amaitu zuten, Aitziber elkartearen egindako kofradien bazkarian.

Langabezia Sakanan

Kontratuen bilakaera

Joan den urtean kontratazioak gora egin zuen Sakanan. 2014arekin alderatuta 606 kontratu gehiago sinatu ziren. Generoari erreparatuta, kontratuen erdiak baino gehiagok gizonen sinadura izaten jarraitzen du, nahiz eta 2015ean emakumezkoek sinatutako kontratuak %1,18 egin zuen gora.

Azken bi urteetan sinatutako hamar kontratuetako bederatzik baino gehiago aldi baterakoak dira, zehazki %94,47 joan den urtean. Hasieratik mugagabe diren kontratuak %2,6 izan dira azken bi urteetan. Urte batetik bestera 1,18 puntu gora egin dutenak mugagabe bihurtu diren kontratuak dira. Hala ere, sinatutako 7.878etatik %2,89 besterik ez ziren izan 2015ean.

Zerbitzuen sektorean aritzeko dira sinatutako kontratuen erdia baino pixka bat gehiago, %52,46. Industriarako dira sinatutako bigarren kontratu kopuru handiena: %44,53, joan den urtean 3,36 puntu igo ondoren. Eraikuntza sektorean kontratazioek 2,25 puntu behera egin zuten joan den urtean Sakanan, kontratuen %2,6. Abeltzaintzarako lan kontratuak gutxienezkoak izaten segitzen dute eta 2015ean, gainera, 0,59 puntu jaitsita, kontratuen %0,41 besterik ez zen.

Sakanan sinatutako kontratuak Nafarroan sinatutako gutxienezkoak %2,32 izan ziren 2015ean, aurreko urtean baino %0,15 gutxiago. Nafarroan urte batetik bestera kontratazioa 15,31 puntu igo zen 2015ean.



Kontratuak / Generoa

	2015		2014	
	Kopurua	Ehunekoak	Kopurua	Ehunekoak
Gizonezkoak	4.163	52,84	3.928	54,02
Emakumezkoak	3.715	47,16	3.344	45,98
Guztira	7.878		7.272	

Kontratuak / Motak

	2015		2014	
	Kopurua	Ehunekoak	Kopurua	Ehunekoak
Hasi Mugagabe	208	2,64	189	2,6
Hasi aldi baterako	7.442	94,47	6.959	95,7
Mugagabe bihurtua	228	2,89	124	1,71
Guztira	7.878		7.272	

Kontratuak / Sektoreak

2015	2014		Kopurua	Ehunekoak
	Kopurua	Ehunekoak		
Abeltzaintza	32	0,41	73	1
Industria	3.508	44,53	2.994	41,17
Eraikuntza	205	2,6	353	4,85
Zerbitzuak	4.133	52,46	3.852	52,97
Guztira	7.878		7.272	

Kontratuak / Sakanakoak Nafarroan sinatutako ehunekoak

2015	%2,32
2014	%2,47

Kontratuak / Nafarroan

2015	338.998
2014	293.979



MOTZEAN

Gobernuak industrialdeko partzelen prezioa zehaztu du

Nafarroako Gobernuak Olatzagutiko Arkinorriti dermian sustatu zuen industrialdeko lur sailen prezioa zehaztu du garuko bilkuran. Olatzagutiko industrialdeko partzelako metro karratu bakoitzeko 39,75 euro ordaindu beharko dira (BEZ kanpo). Eskrituren ordainketak enpresen kontu izanen dira.

Ospak kontrolak salatu ditu

Altsasuko Ospa mugimenduak Guardia Civilak eta Foruzaingoak jarritako 59 kontrol zenbatu zituen Altsasun azaroan eta abenduan. Guardia Civilak 39tan jarri zuen kontrola eta Foruzaingoak 20tan. Ospa mugimenduak azaldu duenez, herri-

ko hiru irteeretan eta Alde Zaharrean kokatu ziren kontrol horiek. Kontrolen salaketarekin batera polizia eta militar indarrak alde egiteko eskera luzatu du ospa mugimenduak. Bestalde, *gauaren iluntasunean argi gera dadila: alde hemendik!* ekimenarekin prestatu du Ospa mugimenduak heldu den ostiralerako. Kintoen dantzaldiaren atsedendian "ehunka kandela hegalarri piztuko ditugu dagokionari mezu argia helaraziz". Egunean bertan kandela hegalarriak eskuratzeko aukera izanen dela adierazi dute.

Muslariendako dei bikoitza biharko

Euskal Herriko Mus Txapelketako kanporaketak jokatu dira Irurtzunen eta Uharteko Arakilen larunbatean. Irurtzunen Pikuxar euskal txokoan 16:30ean dago hitzordua jarrita. Uharteko Arakilen, berriz, 22:30ean hasiko da kanporaketa, Marisol ostatuan.



Altsasuko kanporaketa larunbatean jokatu zen. Zubi-ondo elkartearen muslariaren topaleku bihurtuta, kartajokoan eta tantoak zenbatzen pasa zuten arratsaldea. Azkenean, podiumaren goiko aldean Guerrero-Moreno bikotea gelditu zen, finalean Adur-Ansa bikoari irabazi ondoren. Podiuma Santano-Mikel bikoteak osatu zuen. Xurru, Alde Zaharreko tabernen elkarteak emandako sariak eskuratu zituzten.

Langabezia Sakanan

Azken hilabeteetan aldaketa gutxi langabezia datuetan

Irailetik abendura bitartean Sakanako langabetu kopurua antzeko zifretan ibili da, urtea 1.252 langabeturekin despedituz. Azaroan baino zazpi langabe gehiago dira. Langabeen erdia baino gehiago, %55,99, emakumezkoak ziren (701 eta aurreko hilean baino 22 gutxiago). Gizonezko langabeak, berriz, %44,01 ziren (551 eta 29 gehiago). Adinari dagokionez, langabe sakandar erdiek, %50,48, 45 urte edo gehiago dituzte (632 eta 3 gehiago). Atzetik 25 eta 44 urte bitarteko adin tartea da, %40,26 (504 eta 6 gehiago). 25 urte baino gutxiagoko langabeak, azkenik, %9,27

dira (116 eta 2 gutxiago). Sakanan Nafarroako langabeziaren %2,9 genuen abenduko azken egunean (sakandarrak herrialdearen populazioaren %3,17 gara).

Sektoreka

Sakanako langabeen %59,9k (750, 6 gutxiago) zerbitzuen arloan lan egin nahi luke. Industrian aritzeko prest dauden eskaerak %25 dira (313, 12 gehiago). Eraikuntzarako eskaerak, berriz, %6,47 dira (81, 5 gehiago). Lehen sektorearen aldeko hautua langabeen %2,24k egin dute (28, 1 gutxiago). Azkenik, aurretik lanik egin ez dute-

nen kopurua %6,39koa da (80, 3 gutxiago).

Kontratuak

Abenduan Sakanan 619 kontratu sinatu ziren (62 gehiago). Gizonezkoek %54,28 sinatu zituzten (336, 80 gehiago). Emakumezkoen sinadura zuten kontratuen %45,72k (283, 18 gutxiago). Sinatutako kontratuetatik hasieratik mugagabeak zirenak %2,26 besterik ez ziren (14, 4 gutxiago). Abenduan mugagabe bihurtutako kontratuak %2,42 izan ziren (15, 11 gutxiago). Izan ere, kontratu gehienak, %95,32, aldi baterakoak ziren (590,



77 gehiago). Nafarroan urteko kontratuetatik Sakanan sinatutako azken hilean sinatu ziren 26.149 kontratuak %2,37 ziren.

Urte batean 387 langabe gutxiago

2015eko urte hasieran 1.639 sakandar zeuden Nafarroako Enplegu Zerbitzuan izena emanda. Urteko azken egunean, berriz, 1.252 ziren, 387 gutxiago. Langabetu horien erdiak altsasuarrak dira. Joan den urtean Sakanako herri gutzietan jaitsi zen langabezia. Salbuespena Arruazu izan zen, hiru langabe gehiago zituela.



Urteak utzi duen beste arrastobat da langabeziaren feminizazioa, gero eta emakumezko langabetu gehiago daude, 4,86 puntu gehiago. Abenduaren 31n lan bila zeuden 1.252 sakandarretatik 701 emakumezkoak ziren (%55,99 eta 2015eko urte hasieran baino 137 gutxiago). Gizonezko langabe sakandarrak 551 ziren (%44,01 eta 250 gutxiago).

2015eko urtearen joan erakutsi du zenbat eta adin handiagoa izan orduan eta zailagoa dela kontratatua izatea. Sakanako langabeen erdiak, %50,48, 45 urte edo gehiago zituen (632, 2015eko urte hasierarekin alderatuta 113 gutxiago, baina 5,03 puntuko igoera). 25 eta 44 urte artean dituztenak dira lan bila dauden bigarren adin

tartean. %40,26a dira (504, 232 gutxiago eta 4,56 puntuko jaitsiera). 25 urte baino gazteagoen langabezia Sakanakoaren %9,27 da (116, 42 gutxiago eta 0,37 puntuko jaitsiera).

Urtea joanda, hamar sakandarretik seik, %59,9, zerbitzuen arloan lan egiten seginahiko lukete (750, 190 gutxiago eta 2,55 puntuko hazkunde). Industrian lan egiteko eskaerak laurdena, %25, dira (313, 144 gutxiago eta 7,88 puntuko jaitsiera). Eraikuntzarako prest zeuden sakandarrak langabeen %6,47 ziren (81, 31 gutxiago eta 0,36 puntuko jaitsiera). Azkenik, lehen sektorean lan egin nahi luketenak %2,24 ziren (28, 15 gutxiago eta 0,38 puntuko jaitsiera).

Langabezia udalerrika

Udalerriak	2015eko abendua		2014ko abendua		Aldea
	Guztira	Sakanako %	Guztira	Sakanako %	
Altsasu	619	49,44	806	49,18	-187
Arakil	40	3,19	51	3,11	-11
Arbizu	54	4,31	73	4,45	-19
Arruazu	5	0,40	2	0,12	3
Bakaiku	13	1,04	18	1,10	-5
Ergoiena	11	0,88	18	1,10	-7
Etxarri Aranatz	123	9,82	156	9,52	-33
Irañeta	7	0,56	10	0,61	-3
Iruztzun	149	11,90	164	10,01	-15
Iturmendi	19	1,52	24	1,46	-5
Lakuntza	48	3,83	75	4,58	-27
Olatzagutia	96	7,67	130	7,93	-34
Uharteko Arakil	37	2,96	54	3,29	-17
Urdiain	22	1,76	31	1,89	-9
Ziordia	9	0,72	27	1,65	-18
Sakana	1.252	100,00	1.639	100,00	-387
Nafarroa	43.143	2,90	53.082	3,37	-9.939

Langabeziaren garapena

Data	Guztira	Gizon	Emakume
2009/12	1.342	630	712
2010/12	1.500	672	828
2011/12	1.603	764	839
2012/12	1.864	924	940
2013/12	1.770	898	872
2014/12	1.639	801	838
2015/12	1.252	551	701



Generoa

	2015-12-31		2014-12-31	
	Kopurua	%	Kopurua	%
Gizonezkoak	551	44,01	801	48,87
Emakumezkoak	701	55,99	838	51,13
1.252			1.639	

Adina

	2015-12-31		2014-12-31	
	Kopurua	%	Kopurua	%
<25	116	9,27	158	9,64
25-44	504	40,26	736	44,91
>=45	632	50,48	745	45,45
1.252			1.639	

Sektoreak

	2015-12-31		2014-12-31	
	Kopurua	%	Kopurua	%
Lehen sektorea	28	2,24	43	2,62
Industria	313	25	457	27,88
Eraikuntza	81	6,47	112	6,83
Zerbitzuak	750	59,9	940	57,35
Aurretik enplegurik gabe	80	6,39	87	5,31
1.252			1.639	

CONSTRUCCIONES ALZATE S.L.

ALZATE ERAIKUNTZAK S.L.

Zubeztia 21, Altsasu
Tel. 948 562 745 · Fax 948 467 600
www.construccionesalzate.com

www.pescaderiamariaeugenia.com
Arratsaldez zabalik

maríaeugenia Arrainak

Puntu zaparrada!

Otsailean bazkideek puntu gehiago lortuko dituzte

Unai: 607 804 316 / Olaia: 678 564 722
El Ferial, 1 · 948 467 950 / Isidoro Melero · 948 467 725

berria fundazioa BERRIA HEDABIDEEN FUNDAZIOA
BERRIA beka

Euskara, hedabideak eta teknologia berriak kontuan hartuta proiektu berriak sortu eta martxan jartzeko.
Hedabide, enpresa edo bestelako proiektu berriak sortzeko.
Proiektuak 2016ko apirilaren 1era bitartean aurkeztu ahal izango dira.

Bekaren irabazleak zer jasoko duen trukean:

- 12.000 euro proiektua martxan jartzeko.
- BERRIA Hedabideen Fundazioak eta BERRIA Taldeak dituzten baliabideak erabiltzeko aukera.
- Landutako proiektua martxan jartzeko laguntza, beharren arabera zehaztuko dena.
- Proiektuaren helburua enpresa bat sortzea bada, egileak horretarako Laboral Kutxaren Gaztenpresa Fundazioaren laguntza izango du, nahi izanez gero.

Informazio gehiago eta bekaren oinarriak, webgune honetan: berria.eus/fundazioa

>> Altsasu

Higuero: “Calaiseko errefuxiatu kanpalekuan bizi baldintzak penagarriak eta osasunerako kaltegarriak dira”

Erkuden Ruiz Barroso

Lokatza eta ura. Horrela deskribatzen du Juan Pedro Higuero altsasuarrak Calaisko (Frantzia) errefuxiatu kanpalekua. Jendeak lo egiten duen kanpin dendak lokatzaren gainean eta urez inguratuta daude. Arratoiak paseatzen ikusi zituzten eta zaborra nonahi dago. Usaina eretxarrada. “Jungla” izen jarri diote. Bizi baldintzak latzak dira, hala ere errefuxiatuek jatorrizko herrialdeetako gerrateak baino nahiago dute. Ingalaterrara joateko une egokiena itxopen dute Calaisen, kamioietara edo ferryetara salto eginez. Bitartean, Higuero bezalako hainbat boluntariok bizi-rauteko beharrezkoa dutena bildu eta eramaten die.

“Arima apurtu zitzaigun kanpalekua bisitatu zutenean eta zerbait egin behar genuela pentsatu genuen”. Juan Pedro Higuero Euromarchas 2015eko kide izan zen. Araba, Bizkai, Aragoi, Andaluzia eta Kataluniako hainbat aktibista sozialekin batera Gibraltarretik Bruselara joan ziren lastailan gaur egungo egoera salatzeke asmoz: estura ekonomikoaren, Espainiako Gobernuaren, Troikaren eta Merkelen kontra, besteak beste. Higuero aurretik itzuli behar izan zen, baina lagunak Calaiseko kanpalekura joateko aukera izan zuten.

Furgonetan bueltan zirela lagundu behar zutela pentsatu zuten. Horrela, kanpalekura eramateko gauzak bilduko zituztela pentsatu zuten. “Ez genuen ezer antolatu, gauzak sortuz joan ziren”. Higuero Altsasuko arropa bilketaz arduratu zen. “Ni bakarrik egon naiz hemen, baina eskerrak eman behar dizkiet Sakana-ko DYArri eta Goazen Altsasuri. Kartelak egiten eta herritik jartzen lagundu didate”.

“Ez nuen espero horrenbeste gauza biltzea. Altsasun bi furgoneta bildu genituen. Jendea oso solidarioa da. Harrigarria da: gutxien duenak gehien ematen du”. Higuero antolatutako gauza bat zen, eta ez zekien zer bilduko zuen. Aurretik elikagai bankuarekin kolaboratu izan du eta bazekien elkartzatua zegoela, baina ez zuen horrenbeste espero. Jendeak oraindik deitzen duela eskertzen du. Bilketan mantak, ume eta emakume arropak eta gorputza garbitzeko produktuak eskatu zituen, gehien bat. “Han biltegi handi bat dago eta koordinatzaile batek esaten diguzer behar duten”.

Bizi baldintza latzak

Nafarroan zehar egindako bilketen ondorioz trailer bat eraman ahal izan zuten Calaisera; arropaz, man-



taz, eta abarrez beteriko mila kaxa. 1.500 kilometroko bidaiia luzea egin behar zuten. Juan Pedro Higuero altsasuarra beste zazpi nafarrekin eta gipuzkoar batekin joan ziren. Hilaren 13an iritsi ziren. Biltegian gauzak utzi ondoren kanpalekura joan ziren. “Biltegian zegoen jendeak esaten ziguten ez joateko, tentsioa zegoelako”. Baina hamahiru orduko bidaiia egin ondoren, kanpalekura joan beharra zuten. Bitan egon ziren kanpalekuan. Lehenengo aldian ilundu zuen eta ezin izan zuten asko ikusi. Hurrengo egunean, ilbeltzaren 14an, goizez joan ziren, etxera itzultzeko furgoneta hartu aurretik.

Kanpalekuan sartu bezain laster lokatza dago. Higuero kazaltzen duenez lokatza eta ura nagusi ziren. Kanpatzeko dendak lerroan jarriak daude eta Higuero eta lagunak izena jarri diote: “kale nagusia deitzen dioguna urez beteta zegoen. Kanpin-dendak urez inguratuta zeuden”. Usaina oso txarra zen. Bizi baldintzak latzak eta osasunerako kaltegarriak izan daitezkeenak dira. “Kanpin-dendatik atera eta zaborra dago. Osasungaitza da, edozein gaixotasun sortu daiteke egoera horretan”. Kanpalekua luzeran handia da. Bertan dagoen jendea herrialdeka banatuta dago: kurduak kurduekin, siriatik etorritakoak elkarrekin, eta abar.

Siria, Afganistan, Pakistan, Eritrea, Kurdistan... gerratean dauden herrialdeetatik ihes egin duen jendea dago Calaisko kanpalekuan. Ez zuten ezer eramateko aukera izan. Horregatik, garrantzitsua zen mantak eta neguko arropa eramatea. “Jende oso gaztea zegoen. Zaharrenak 25 urte inguru izango zituen”. 6.500 edo 7.000 pertsona inguru dago orain Calaiseko errefuxiatuen kanpalekuan. Haietako 1.500 bat emaku-

meak eta umeak dira. Gizonak dira gehienak. Ingalaterrara joan nahi dute, hori da haien ametsa. Baina Britainia Handiak mugak itxi ditu. “Badakizu zer egiten duten gaue-tan? Zubi batera joaten dira, behetik Ingalaterrara eta ferryra doazen kamioiak pasatzen dira. Errepidea luzea da eta ziztu bizian doaz. Kalkulatu behar dute zenbat kilometro orduko doazen, eta salto egiten dute”. Gehienek aurretik joandako senideak dituzte Britainia Handian.

Kanpalekua botako dute

Etxera itzultzeko furgonetara joaten zirenean jendarmeriaren lau furgoneta ikusi zituzten. Polizia gerturatu zitzaie eta handik alde egiteko eskatu zien. “Itzultzaile batekin joan ginen eta nik esan nion esateko europarrak ginela eta han egoteko eskubidea geneukala. Baina ez zuten ezer entzuten. Alde egiteko esaten ziguten behin eta berriz”. Kazetariekin joan ziren eta poliziek kamerak ikusi zituztenean lehenbailehen joateko esan zien. “Prentsa ez zutela nahi esan ziguten eta alde egiteko. Une horretan kamerak besotan zintzilik zeramatzen, ez ziren argazkiak ateratzen ari”.

Frantziako Gobernuak ilbeltzaren 14 eta 15erako kanpalekua botatzeko agindua eman zuen. 200 metro koadro bota zituzten. “Guk ez genekien egun horretan botako zituztela, baina palak ikusi genituen. Horregatik, poliziak alde egiteko esan ziguten”. Kurduen ingurua bota zuten. Garagarrikerako kanpaleku osoa botatzea espero du Frantziako Gobernuak. “Eskolatuta eraman gintuzten itzultzeko aukera ez izateko”. Kanpalekuaren alde batean bertan lo egin ahal izateko edukiontzia jartzen ari dira. “Adineko jendea eta familiak sartuko dira. Hamabi ohe egongo dira edukiontzi bakoitzean”. Behatze-tako oinatzen bidez kontrolatu dituzte.

Kanpalekuan zeudela Alacanteko lagun batekin elkartu ziren. Boluntario hilabete bat egongo da Calaisen. Berak erakusten die une bakoitzean egoera nola dagoen. “Ni ere laster hilabete baterako joango naiz boluntario”. Higuero sukaldetan egongo da lanean. Gainera, martxoan bilketa berri bat egingen du Altsasun. “Oraindik ez dakit zer eskatuko diguten, biltegiko koordinatzaileak esaten digu zer behar duten. Orain, adibidez, gizonetako M tailako arropa behar da. Mantaririk ezta ume arroparik ez”.

Solidaritatea

“Gobernuek egin behar luketena egiten duguk”. Juan Pedro



Higuero bakarrik hasi zen bilketarekin, baina ondoan jende gehiago egon da laguntzen. Solidaritatea ikusi du nonahi. “Altsasuko Udalari hurrengo bilketa egiteko biltegiaren bat eskatu

nahi diot”. Izan ere, lehenengo bilketa honetan Iñigo Agirrek utzitako etxe batean egin du bilketa. “Eskerrak etxea utzi zidala. Bestela ez dakit zer egingo nuen”.



GRUPO TANATORIO
IRACHE
TANATORIO TALDEA

948 197 070

Tanatorioak: Altsasu-Irurtzun-Lekunberri-Betelu-Leitza

www.tanatoriosirache.com

guaixe.iragarkilaburrak.com

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Guaixe astekarian: Astebete: 3€ / 3 Astez: 8€ (BEZ barne). Argazki bakoitzeko 3€. Lan eskaerak/eskaintzak eta pribatuak ez diren ikastaroak: **doan**.
Webgunean: guaixe.iragarkilaburrak.com-en.

HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75
Posta elektronikoa: zorion@guaixe.eus

Higiezinak

ETXEAK

SALGAI

Etxebizitza lursailarekin salgai Etxarri

Aranatzen. 4 gela, 2 komun, sukalde-egongela, garajea eta 130 metro karratuko lursaila. Interesatuak deitu 676 92 71 65 telefonora.

LOKALAK

ERRENTAN EMAN

Urdiaingo Kaluxa taberna-jatetxea alokatzetan da. Tel 680 87 10 18.

Opatutakoak / galdutakoak

OPATUTAKOAK

Altsasuko Udaltzaingoa Altsasun galdutako gauza hauek ditu: diru-zorroak, poltsak eta nezeserrak: 31. Audifonoa: 1. Betaurrekoak eta betaurreko-zorroak: 42. Euritakoak eta makilak: 19. Belarritakoak, kateak, eskumuturrekoak, eraztunak, erlojuak eta imitaziozko bitxiak: 31. Arropak eta oinetakoak: 48. Bizikletak eta patinak: 10. Beste objektu batzuk: 8. Etxeko giltzak eta ibilgailuak.

GALDUTAKOAK

Errege egunean Beriain mendian ibiltzeko diren bi makil galdu nituen, aparkalekuan. Opatu dituenak, mesedez, hots egin dezala 646 88 97 76 telefonora.

Etxarri Aranazen betaurreko graduatuak galdu ditut. Opatu dituenak, mesedez, hots egin dezala 649 54 58 38 telefonora.

Oharrak

Amalur Montessori Haur Eskola. Haurra bere osotasunean hartzen duen proiektua, beren ongizatea bermatzen duen proiektu euskalduna. Harremanetarako 620 25 42 30 eta amalur@amalurelkarrea.org

Nicoleren aldeko diru-bilketa. Garun paralisia duen neska olaztiarra atzerrian operatzeko diru-bilketan ekarpena egin nahi duenak kontu korronte honetan sartu dezake dirua: ES 33 2100 5365 2301 0002 9770.

Benigno omentzeko auzolana. Apirilean eginen da Urdiainen. Proiektutako den ikusentzunezkoa egiteko argazkiak behar dira. Baita egunean bertan lan egiteko. Harremanetarako: benignolagunak@gmail.com

Irurtzongo irakurle taldea. Otsailak 4, 18:00etan, "Un armario lleno de sombra" - Antonio Gamoneda.

Lakuntzako elkartasun zozketa. Zenbaki sariak, hauek dira: Egur berogailua, 1244; Gurutz saskia, 828; Brindi saria, 681; Eder saskia, 2393; ardo loteak, 121, 1886 eta 2376.



Jesus Mari Jaka Maiza Xabino Garmendia Iriarte

Beti gu tartien yonen zarie.

Zuen 1969ko kintuek



Isabel Dieguez Jaca


Eskerrik asko guztiagatik.

Zure bilobak
Asier eta Itxaso, Iker, Maider eta Andres

Joxe Mari Martinez Enekoitz Mendiola




Zuen kintuek



Isabel Dieguez Jaca

Beti egongo zara gurekin.

Zure familia



Jose Antonio Salinas Goikoetxea

Eskerrak eman nahi dizkizuegu momentu triste hauetan, gure ondoan egon zareten guztiei.

Familia



Jose Antonio Salinas Goikoetxea

Sinesten dut hartuko nauen lur hortatik landare berriak sortuko direla: landaretatik zuhaitzak, zuhaitzetatik loreak, loreetatik fruituak, fruituetatik gizonak eta abereak bazkatuko direla.

Zure familia

JAIOTZAK

• **Nora Balda Ijurko**, ilbeltzaren 12an Irurtzunen.

HERIOTZAK

• **Margarita Goikoetxea Ureta**, ilbeltzaren 14an Uharte Arakilen.
• **Felisa Iribas Sarasa**, ilbeltzaren 15ean Irurtzunen.
• **Perfecto Arakama Zelaia**, ilbeltzaren 21ean Altsasun.

• **Victorio Florencio Colombo**, ilbeltzaren 21ean Altsasun.

• **Nicolas Vergara Garasa**, ilbeltzaren 21ean Altsasun.

• **Isabel Dieguez Jaca**, ilbeltzaren 21ean Altsasun.

• **Fermin Goikoetxea Agirre**, ilbeltzaren 23an Urdiainen.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da. Agertu nahi ez duenak, han jakinarazi dezala.



FRAN RAZKIN MAIZA
OSCAR IRIARTE RAZKIN

Etxarri Aranazko 68ko kintuek.



GRUPO
**Funeraria
VASCONGADA**
Ehorzketak
TALDEA

Olaberrian bertan **BEILATOKIA** eta **ERRAUSTOKIA**
www.funerariavascongada.com

24 ORDUZ: 943 106 222 • 943 376 980

Kirola >>

Irristaketa

140 irristalari Olaztin



Mank-ek antolatutako Sakanako Irristaketa Topaketan bildu ziren

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak, Olaztiko Udalaren laguntzarekin, Sakanako Irristaketa Topaketa antolatu zuen larunbatean. Olaztiko Erburua kirolde-

gian Sakanako 140 irristalari inguru bildu ziren, Sakana Irristaketa Taldekoak gehienak -Olaztiko Sute-gi, Altsasu taldea, Urdiaingo Aitziber eta Etxarri Aranatz eta beste herrietako partaideez osatua- eta Etxarri Aranazko eta Uharte Ara-

kilgo irristaketa eskoletakoak baita ere. Topaketaren antolaketan Sakana Irristaketa Taldeko arduradun Juli Acebes ibili zen burubelarri, Irantzu Imazek eta Saioa Baztanek lagunduta.

Sakanako irristalariak elkar

ezagutzea eta irristaketaz gozatuz egun polita pasatzea, hori izan zen topaketaren helburua. Eta lortu zuten, irristalariak eurendako propio prestatutako joko, ekitaldi eta lasterketez gozatu zutelako. Bukareran askaria izan zen denondako.

Futbola

Sakanako Futbol 8 Topaketak

Igandean 11. jardunaldia hartuko dute Altsasuk eta Urdiainek

Sakanako Futbol 8 Topaketetan bigarren joanaldia hasi da. Aurreko asteburuan futbolearen beharrezko areto futbolearen aritu ziren neska-mutikoak, Olaztiko Erburua kiroldegian eta Etxarri Aranazko San Donato eskolako kantxan. Baina igandean atzera ere Altsasuko Dantzalekuko eta Urdiaingo futbol zelaietara itzuliko dira, Sakanako Futbol 8 Topaketetan 11. jardunaldia baitago jokoan.

11. jardunaldia (Igandean)

Altsasun

11:00etan: Lagun Artea - Sayas

12:00etan: Etxarri - Dantzaleku

12:00etan: Tipi Tapa - Kaixo

Urdiainek

13:00etan: Sutegi - Urdiaín

Atsedenean: Mediolanum

Aizkora


Resano Munduko Aizkolari Azkarrenaren Txapelketan



Igandean, 12:00etan, Agurainen

Igandean hasiko da Egur Sportek antolatutako Munduko Aizkolari Azkarrenaren Txapelketa, Agurainen. Zehazki, lehendabiziko kanporaketa egonen da jokoan. 16 aizkolari lehiatuko dira, tartean Iban Resano dorrobarra. Berarekin batera Aitor Jauregi, Iñaki Kintana, Eloi Kortxero, Juan Rodriguez, Dani Lopez, Esteban Muñiz, Asier Pellejero, Daniel Vicente, Eneko Saralegi, Aitor Senosiain, Ruben Saralegi, Julen Kañamares, Felix Etxeberria, Mieltxo Midegia eta Juanjo Lopez Azpilikueta ariko dira. Kanporaketa sisteman jokatu da lehen kanporaketa hau; 45 ontzako bi enbor erdibitu beharko dituzte aizkolariek eta azkarrenak egingo dute aurrera.

O'Toole eta Vicente bikain Lakuntzan



Binakako Urrezko Aizkolariak txapelketaren 5. jardunaldia jokatu zen larunbatean San Sastin festetan murgilduta zegoen Lakuntzan. Joseba Otaegik eta Juanjo Lopez Azpilikueta Nafarroako egungo txapeladuna den Iker Vicente gaztea eta Lawrence O'Toole australiarra izan zituzten aurkari. Txapeladun australiarra lanean ikusteko ikusmin handia zegoen eta puntako aizkolariak eta aizkora zaleak gerturatu ziren Behar-Zana pilotalekura, tartean besoan mina hartuta dagoen Olasagasti. 250 ikusleek gozatu ederra hartu zuten, Iker Vicentek eta Lawrence O'Toolek sekulako saioa eskaini baitzuten: jaun eta jabe izan ziren proba guztietan. Sekulako maila eman zuten bietan, eta proba guztietan gailendu ziren. Harritzekoa izan zen O'Toolek 45 ontzako erlojuz kontra erdibitzeko lana: 30 segundotan bota zuen enborra. Otaegik, berriz, minutu bat behar izan zuen. Ikaragarria australiarrek egindakoa. Gainontzeko lanetan ere Otaegi eta Lopez baino finago ibili ziren australiarra eta Vicente. Iraupen proban -lau kana-erdiko eta bi 60 ontzako erdibitzekoa- Vicente O'Toole baino hobe moldatu zen, baina, hala ere ez zuten aparteko arazorik izan Lopez Azpilikueta Otaegi menpean hartzeko. Lan guztiak kontuan hartuta, Vicentek eta O'Toolek 16 minutu eta 55 segundo behar izan zituzten guztia despeditzeko eta Otaegik eta Lopezek, aldez, 19 minutu eta 36 segundo. Finalerako sailkatzeko pausu handia eman dute Vicentek eta O'Toolek. Aizkora proba jokatu bitartean harri jasotze erakustaldi bikaina egin zuen Inaxio Perurenak. Tartean, 270 kilo erraz jaso zituen leitzarrak. 111 kiloko bolarekin ere erakustaldi bikaina egin zuen.

Txirrindularitza

Tourra du helburu Movistarrek



Imanol Erbiti aurkezpeneko argazkian, eskuinean, goian.

Movistar Team taldearen aurkezpenen "aurreko urteko ilusioarekin" jarraitzen dutela berretsizuen taldeko manager Eusebio Unzuék. Dagoeneko lehendabiziko garai-pena du taldeak, Nairo Quintanaren anaia Dayerrek irabazi baitu San Luiseko Tourra, baina bertan erorikoa izan zuen Adriano Malori taldekideak eta Argentinako ospitale batean dago italiarra, buruko lesio batez osatzen. Litekeena da aurtengo denboraldia galtzea.

Movistar tropeleko talderik beterranoena da. 27 txirrindulari ditu aurtun taldeak -6 baja izan ditu eta 5 alta-, Nairo Quintana eta Alejandro Valverde buru direla. 2016an aurreko urteko helburuak gainditzea eta "Quintanarekin Tourra irabaztea" da helburu nagusia. "Taldekide bikaina sortu dugu, zentzu guztietan, eta txirrindularien progresioak erakusten du helbu-

ru garrantzitsuena, Tourra, lortzeko aukerak baditugula. Munduko talderik onena izaten jarraitzea ere nahiko genuke" nabarmendu zuen Eusebio Unzuék. Valverderen helburua, berriz, Italiako Giroa da.

Quintanak eta Valverdek talde bikaina dute alboan helburu horiek gauzatzen laguntzeko. Tartean egongo da Imanol Erbiti. Hiri-berriko txirrindulariak 32 urte dauzka eta konfiantzazko gizonetako bat da, talde gizon bikaina. Aurtun bere 12. denboraldia egingo du Erbitik profesional moduan, talde berberarekin, eta igandera arte jokatu den Mallorcako Challengean ariko da. Bestalde, Movistarren staffean Jose Luis Arrietak jarraituko du. Uharte Arakilgo txirrindulari ohia Movistarren zuzendari preziatuenetarikoa bat da.

Futbola

PREFERENTE MAILA. 1. multzoa

17. JARDUNALDIA

GARES 2 - ETXARRI ARANATZ 1
MUTILBERA 0 - LAGUN ARTEA 1

Gares liderraren eta Etxarri Aranatz ardeko partida ederra izan zen. Gares aurreratu zen, eta nahiz eta Etxarri liderra estutu, ez zuen asmatzen. Bigarren zatia hasi eta berehala Gares bigarren sartu zuen. Nahiz eta Xabatek bigarren txartel horia ikusi eta Etxarri bat gutxiagorekin geratu, Josebak Etxarriren aldeko gola sartu zuen. Baina, tamalez, ez zuten berdintzea lortu. Aldiz, Mutilobeititik 3 punturekin etorri zen Lagun Artea. Mutilbera hobeki ari zenean, Xabierrek Lagun Artea aurreratu zuen, pase bikain bat probestuz. Lagunek ongi defendatu zuen eta 3 puntuak Lakuntzara ekarri zituen.

Saillkapena >>

1. Gares	37 p
3. Etxarri Aranatz	30 p
5. Lagun Artea	28 p

Asteburuko jardunaldia

ETXARRI ARANATZ - CASTILLO DE TIEBAS

(Ilgandean, 15:45ean, Etxarrin)

LAGUN ARTEA - BETI CASEDANO

(Ilgandean, 16:00etan, Lakuntzan)

ERREGIONAL MAILA. 3. multzoa

17. JARDUNALDIA

ALTSASU 1 - HUARTE 1

Altsasu eta Itarua Huarte parez pare lehiatu ziren Dantzalekun. Huartek hartu zuen kontrola, eta 65. minutuan aurreratzea lortu zuen. Baina Javi Guisadok berdindu zuen eta puntu banaketarekin despeditu zen lehia.

Saillkapena >>

1. Doneztebe	44 p
9. Altsasu	20 p

Asteburuko jardunaldia

PAMPLONA - ALTSASU

(Ilgandean, 12:30ean, Lizasoainean)

ELOMENDIKO TXAPELKETA.

2. FASEKO 5. JARDUNALDIA. A MULTZOA

ZALDUA 3 - BERIAIN 1

EGIARRETA - APOLO (atzeratuta)

Saillkapena >>

1. Egiarreta	13 p
5. Zaldua	6 p

Asteburuko jardunaldia

RINCON IRAN - EGIARRETA

(Larunbatean, 17:00etan, Larrabiden)

ENERITZ - ZALDUA

(Larunbatean, 15:45ean, Eneritzen)

Txirrindularitza



Mateo Gonzalezendako Gipuzkoa Saria

Burundako Txirrindularia onena izan zen pistako proban

2016 urtea hastearrekin batera Burunda Txirrindularitza Klubeko Quesos Albeniz taldeko juniorrak eta kade-teak entrenatzen hasi dira. Baita Aralarrekoak ere. Txirrindulari batzuk ere pistari ibiltzen dira eta hainbat txapelketetan aritu dira. Tartean, Burunda klubeko Mateo Gonzalez txirrindulari berriak irabazi du Gipuzkoako Saria, Donostiako belodromoan jokatuakoa. Hodei Zia juniorrak ere pista probatu du eta esperientziarekin gustura geratu dela adierazi dute Burunda klubetik.

Pilota



Finalak despedituta sari ematea egin zuten Lakuntzako Behar Zana pilotalekuan, Jon Ander Alibisu pilotaria bertan zela. UTZITAKOA

Baditugu txapelak

Sakanako Pilota Txapelketako finalak jokatu ziren larunbatean Olaztin eta Lakuntzan

Sakanako pilota klubek antolatutako Sakanako Pilota Txapelketako finalak larunbatean jokatu ziren, goizean Olaztin, eta arratsaldean festa giroan murgilduta zegoen Lakuntzan. Giro ederra izan zen bi herrietan jokatuak partidetan eta Lakuntzako finalak jokatu ondoren sari ematea egin zen, Behar Zana pilotalekua beteta

zegoela. Ama lakuntzara duen Jon Ander Alibisu pilotaria egon zen sari ematean, etorkizuneko pilotarien gozamenarako.

Aipatu txapelketan ondoko klubetako pilotariak lehiatu dira: Lakuntza pilota elkarte, Altsasuko Pilotajauku taldea, Etxarri Aranzko Gure Pilota Elkarte, Arbizuko Aldabide taldea eta Olaztiko Sutegi taldea. Txikien mailatik hasita gazteen mailara bitartean, guztira 11 kategoriatan jokatu da txapelketa. Sakanako Pilota Txapelketa bereziki txikienei txapelketetan parte hartzea ahalbidera-

Sakanako Pilota Txapelketako finalak

Olaztin:

Txikiak: Ganzarain-Flores (Aldabide) 11 / Miguel-Izagirre (Aldabide) 18

Umeak 2: Mitxelena-Amillano (Pilotajauku) 18 / Razkin-Lier (Gure Pilota) 11

Kimuak 2: Lezea-Agudelo (Pilotajauku) 18 / Urbe-Mentxaka (Aldabide-Sutegi) 8

Haurrak 1: Goikoetxea-Gorrotxategi (Aldabide) 13 / Lopez de Zubiria-Lizarraga (Gure Pilota) 18

Kadeteak 2: Lima-Mentxaka (Aldabide-Sutegi) 17 / Araña-Senar (Gure Pilota) 22

Nagusiak: Jokin-Julen (Sutegi) 22 / Galartza-Arana (Pilotajauku) 9

Lakuntzan:

Umeak 1: Amado-Leiza (Aldabide) 18 / Mikel-Eneko (Sutegi) 8

Kimuak 1: Erdozia-Flores (Aldabide) 18 / Imaz-Garmendia (Aldabide) 16

Haurrak 2: Arraiza-Elizondo (Lakuntza) 15 / Imaz-Lizarraga (Pilotajauku) 18

Kadeteak 1: Olaetxea-Petriati (Aldabide) 22 / Otxoa-Ganboa (Gure Pilota) 13

Gazteak: Nazabal-Goikoetxea (Aldabide) 9 / Ramirez-Arbizu (Pilotajauku) 22

tzeko sortu zen, eta helburua lortu du, asteburuko Sakanako frontoietan barna pilota partidak jokatzen aritu baitira Sakanako pilota

eskoletan trebatzen diren gazteak. Guztira 11 final jokatu ziren eta maila ederreko partidak eskaini zituzten gure pilotariak.

>>

Ezkurdia eta Barriola laugarren puntuaren bila astelehenean Tolosan

Binakakoa. Saillkapena:

Irujo-Rezusta	7 puntu
Olaizola II.a-Urrutikoetxea	6 puntu
Artola Alibisu	6 puntu
Bengoetxea VI.a-Untoria	4 puntu
Ezkurdia-Barriola	3 puntu
Iribarria-Merino	2 puntu
Altuna III.a-Merino II.a	2 puntu
Berasaluze II.a-Beroiz	2 puntu

Berasaluze ordezkatzan zuten Victorrek eta Beroizek 18 eta 22 irabazi zieten Ezkurdiari eta Barriolari. Orain Iribarria eta Merino dituzte aurkari

Aurreko astean Labriten Olaizola eta Urrutikoetxea modu ikusgarrian irabazteagatik zetozen Ezkurdia eta Barriola, eta arbi-zuarraren eta leitzarraren partida bikaina espero zen larunbatean Labriten. Baina Berasaluze ordezkatzan zuten Victorrek goitik behera baldintzatu zuen partida: lotsagabe jokatu zuen errioxarrak eta bere onetik aterazituen Ezkurdia eta Barriola.

Material aukeraketan Ezkurdiak adierazi zuen Victorren eta Beroizen kontrako partida konplikatu izango zela, "Victor gogokekin etorriko delako". Errioxarrak "esku arina" duela, "parti-

9. jardunaldia

Berasaluze II.a-Beroiz / Bengoetxea VI.a-Untoria (ostiralean Bilbon. ETB1, ntb)

Artola-Alibisu / Altuna III.a-Merino II.a (larunbatean Idiazabal)

Olaizola II.a-Urrutikoetxea / Irujo-Rezusta (larunbatean Gasteizen)

Ezkurdia-Barriola / Iribarria-Merino (astelehenean Tolosan)

dari erritmoa jartzen diola eta airez erraz sartzen dela" gaineratu zuen arbi-zuarrak. Eta bete bete asmatu zuen.

Hasieratik aurreratu ziren Victor eta Beroiz, 0 eta 4 eta 4 eta 8. Errioxarrak sekulako abiadura ematen zion pilotari eta non kokatu ez zekiela ere ibili zen Ezkurdia. 9 eta 10 gerturatu ziren Ezkurdia eta Barriola, baina Asegarcekoek 6 tanto egin zituzten bata bestearen atzetik eta 9 eta 16 aurreratu ziren. Ikusgarri jokatu zuen Victorrek eta asko



Victorrek Ezkurdia eta Barriola jokoz kanpo utzi zituen. UTZITAKOA

arriskatu zuen. Dena galduta ikusi zutenean hasi ziren hobeto jokatzen Aspekoak. 13 eta 21etik 18 eta 21era gerturatu ziren Ezkurdia eta Barriola, baina orduan saketik falta egin zuen Ezkurdiak eta partida galdu egin zuten. Lasaitasun pixka bat emanen liekeen puntua galdu egin zuten arbi-zuarrak eta leitzarrak.

Izan ere, txapelketan 3 punturekin daude Ezkurdia eta Barriola. 9. jardunaldia jokatu da asteburuan eta 2 puntu dituzten Iribarria eta Merino izango dituzte aurkari astelehenean Tolosan jokatu den partidaren. Arerio zuzenak dira eta behe postuetatik aldea hartzeko urrezko puntua dago jokoan.

kultura >>

Sakanako bardoak lanera

Etxarriarrak gaur Berriozarren ariko dira eta altsasuarrek etzi Lesakan

Bardoak, Nafarroako taldekako bertsoekimenak bigarren asteburua izanen du honakoa. Parte hartzen ari diren bi talde sakandarrak bertsoan ariko dira asteburuan. Bardoak ekimenean estreinako saioa dute Einnekin talde etxarriarrekoek. Eneko Lazkoz, Saats Karasatorre, Oier Lakuntza, Joseba Beltza eta

Unai Artieda dira taldea osatzen dutenak. Haiek gaur, 20:00etan, Berriozarko Taupaka gaztetxean izanen den bertso merenduan parte hartuko dute. Parean Barañaingo eta Berriozarko bertsolariak osatzen duten Hiru garabardo eta pintxo bat taldea izanen dute. Hau da, Sarai Robles, Mikel Lasarte, Ainara Ieregi eta Manex Mailharin.

Eta larunbateko estreinaldiaren ondoren, bigarren eta azken

saioa du Altsasuko Bota lasai taldeak (Aitziber Grados, Amets Artieda, Aritz Goikoetxea, Idoia Granizo, Ekain Alegre eta Joxema Leitza). Lesakako Unibertsolariak taldearekin saioa izanen dute Arrano elkartearen, igande eguerdian. Azken talde hori honako bertsolariak osatzen dute: Josu Sanjurjo, Jose Juan Zubieta "Etxabe", Jon Silveira eta Iban Garro. Saioaren aurkezleak Garazi Conde eta Ainara Etxabide izanen dira.

Bardoak bertsoan



Jose Iriarte Zufiurre, Ttoto, (1864-1929) zenaren ondoren, Altsasun bertsolariak segida du. Horren adierazle da Bardoak, Nafarroako taldekako bertso ekimenean parte hartzen ari den Bota lasai taldea. Idoia Granizo eta Ekain Alegre gazte altsasuarrekin batera, Josema Leitza aritu zen bertsoan. Parean Iruñeko Xirristi Drimtim taldeko Unai Uberetagoena, Xabier Zarraluki eta Migel Anjel Ortiz de Guzman izan zituzten.

Gure Etxea eraikinean 40 entzulek adi jarraitu zituzten bertsolariak, saioa motel xamarra atera bazen ere. Entzuleek gustura parte hartu zuten bertsoaren oina asmatu beharreko ariketan. Aurreneko haurdunaldiko lehen ekografiaren aurrean guraso plantak egiten Idoiak eta Ekainek erakutsitako heldutasunarekin harritu ziren. Saioak ezohizko uneren bat ere izan zuen. Leitzak publikoan zegoen Eneko Lazkoz bertsolariari

hark erabiltzen zuen doinuaz galdetuzion, ezohiko doinuekin kantuan aritzeko eskatzen baitzioten ariketa hartan. Agur umoretsua izan zuen saioak. Larunbatekoa eta gero Bota lasai taldeko kideak igande eguerdirako prestatzen hasi dira. Aitziber Grados, Amets Artieda, Aritz Goikoetxea, Idoia Granizo, Ekain Alegre eta Joxema Leitza Lesakako Unibertsolariak taldearekin neurtuko dira.

bazterretik

Aritz Viñas

Lo que aletea en nuestras cabezas

Hau da Robe Iniestaren (Extremoduro taldearen abeslaria) lehen bakarkako diskoa, 2015eko ekainaren bederatzian argitaratua izan zena. Bere azkeneko lan honetan bost musikari hauekin lan egin du Robek. Bateria Alber Fuentes, David Lerman baxua, saxoa eta klarineta jotzen, Alvaro Rodríguez Barroso pianoa, teklak eta akordeoiarekin,

Lorenzo Gonzalez ahotsa eta Carlitos Perez biolinarekin. Aldaketa handia ikus dezakegu disko honetan Extremoduroko diskoekin alderatzen badugu. Musikak ez du zer ikusirik, bere taldeak duen indarra mantentzen du musikak, baina beste estilo batekin; rocka alde batera utzi eta aire klasikoagoetara jo du Robek bere bakarkako lana aurkezteko orduan. Estilo guztiz ezberdina erabiltzen du baina, lehenesan bezala, indarranaba-

ria da, hau lortzeko musikaren bolu-mena eta intentsitatearekin jokatzeko du. Kanta bat lasai hasi daiteke, baina, bat batean crescendo baten ondoren indar handia hartzen du kantak, berriro ere bere bukaera lasai amaitzeko. Aldatzen ez den gauza bat Roberen letrak dira. Poesia idazten du, eta Extremoduro-ren abestiaren estiloa jarraitzen du. Robek berak esanda, "abesti hauek Extremoduroko abestiak izateko ahalmena dute, bai-

Agertokiaren, mikro antzerkien txanda



Larunbatean, 19:00etan, Etxarri Aranazko kultur etxean Lorena Arangoaren eta Xabier Artiedaren antzezlanak ikusteko aukera izanen da

Sakanako sortzaileei Etxarri Aranazko kultur etxean euren lanak erakusteko aukera eskaini die Agertokiye zikloak. Bihar bi antzezlan laburrekin gozatzeko aukera izanen da. Alde batetik, Irurtzundik heldu den clow-a, Lorena Arangoa. *Nirea zurea da* izenburuko obra taularatuko du. Haurrak bizitzaren opari dira... ala ez? Bat nahi? moduko galderekin aurkezten du lana Arangoak. Emanaldian amatasunari eta haurren zaintzari

buruzko iritziak partekatzen dira. Clown irurtzundarrak bi esketetan antolatuta du ikuskizuna, eta tartean bideo bat emanen du.

Xabier Artieda eta Julio Cesar Terrazas aktoreek, berriz, *Vladimir eta Nikavko* "erritmo biziko eta erokeriaz betetako" antzezlan eskainiko dute, "hasi eta buka ikuslea harrapatzen duena". Bi pertsonaiek euren esperientzia despiditzeko dena prest dute. Urte askotako lanaren ondoren palanka bat aktibatzea besterik ez zaie falta eta mundua beraien menpe egonen da. Baina bat-batean dena buruz bera jarri eta, istripu baten ondorioz, Vladimirek bizitza galduko du.



Falstaff delako hori

Larunbatean, 20:00etan eta 22:15ean, Altsasuko Iortia kultur gunean Tarima Beltzaren antzeziana

Tragikomediatik tragikomediarera. Bakardadea gaia zuen antzezlan batetik heriotza gaia duen beste batera pasa da Tarima Beltza antzerki taldea. Baina Altsasuko antzerki taldearen lan berria fartsa ere bada: *Falstaff no cree en la otra vida*. Hori antzezlanaren izenburua, Juan Manuel Herrero, Zapak, osatu duena: “baina harekin jolasten”. Haren ustez, antzezlanaren irakaspena da heriotzak gurekin jolasten duela.

Jon Barbarin zuzendariak gaineratu duenez, “heriotza inguruan dugu eta ez dakigu hura naturaltasunez hartzen”. Inauteriak bertan dira eta “kontatzen dugun istorioa ihoteei buruzkoa da. Halako ihoteparranda bat da”, argitu digu Zapak.

Tarima Beltzakoek jokatu dutena Francisco Javier Gil Diez-Condek idatzitako obra da. 1989an Eusko Jaurlaritzaren Francisco de Avellaneda saria jaso zuen. Antzezlanaren berri 90eko hamarkadan izan zuen Zapak. Lotuta gelditu zen. “Beti taulartzeko asmoa izan dugu. Duela lau bat urte egitekoan izan ginen baina gauza bategatik edo beste bategatik aldatu egingenuen”. Maskarekin lan egitea zen arrazoietakoa bat.

Zein da Falstaff?

William Shakespearek Enrike IV. obran agertzen da Falstaff. Zapak hala deskribatu du: “Enrike IV. ren sasio seme Hal printzearen bufoi potoloa, lagun borrokazalea, festazalea, andrezalea da”. Tarima Beltzak taularatuko duen antzezlanean Falstaff emakume moz-korti eta hitzontzi bat da protagonista, Maria Muxarra. “Gaitz pila ditu, baina ez da hiltzen”.

Maria Muxarra (Mertxe Herrera) Lisa Iturriagaren (Marta Diego) lagun mina da. “Herriko aberatsen alaba da Lisa”. Iturriaga andrea, Lisaren ama, (Olibi Galparsoro) ere antzezlanean dago. “Ama-alabek nahiko erlazio gorabeheratsua dute”. Lisak lagun mina du, Amaia (Eider Leoz). Bada mutil bat ere (Nahikari Gonzalez). “Nahikarik gizonarena egiteko



lan handia egin du, ez baikara klitxe batean oinarritu”. Apaizak (Juan Manuel Herrero) eta Kasildak, apaizaren zerbitzariak, (Pili Maldonado) osatzen dute pertsonaien-zerrenda.

Aurreko obran bost aktore zuden taula gainean. Haietako bat iruinerrikoa. Oraingoan eszena-razpi aktore aterako dira. Sakanako baratzeko aktoreengana jo dute aktore-multzoa osatzeko: Olibi Galparsoro, Nahikari Gonzalez eta Eider Leoz. Amaia Mintegi ordezkatzuz sartu zen Galparsoro.

Maskarekin lana

Tarima Beltzak haiendako berria den teknika berri batekin antzeztuko du obra, aurpegi erdia estaltzen dien maskarekin. “Maskara erdiak berezitasunak ditu. Adierazi nahi dutena argi gelditzeko gorputzaren mugimenduak gar-

bitu behar izan dituzte”, azaldu digu Barbarinek.

Mertxe Herrerak azaldu digunez, “maskara erdiarena gai interesgarria da. Zaila. Baina, zorionez, zuzendariak maskarekin lan egin du eta, horregatik, animatuginen”. Zapakesan duenez, “gorputzarekin gehiago adierazi behar dugu eta ez gaude dinamika horretara ohituta. Kostatu zaigu neurria hartzea”. Herrerak gaineratu duenez, “aurpegiarekin adieraztera ohituta gaude. Begien adierazpidea ez izatean gorputzaren bidez gehiago esan behar dugu. Eta publikoa hor dagoela, horren kontzientzia handiago hartzea ekarri digu”.

Zapak eta Herrerak hasieran asko kostatu zitzaizela aitortuta ere, “maskara itogarri egiten zaitzu”, ohitu eta ongi dagoela gaineratu dute. “Esperientzia polita da”. Aitortzekin segituz, Barba-

rinena: “krisiak egon dira. Hori ere, ona da. Taldeak behar duela; hortik gauzak ateratzen direlako. Baina kostatu egin da, bai”.

Maskarak Zapak egin ditu. Aktore bakoitzaren maskarak egin zituen lehenik eta “gero erabat desitxuratu ditut”. Bestalde, antzezlanaren eszenografiak Tarima Beltzaren ildo minimalistari segida ematen dio. Bi eszena ditu lanak. Panel pare batekin apaizaren etxea egin dute, aldare, mahaitxo eta guzti. Shantiren tabernan bilakatuko dira elementu horiek gero.

Elkarrekin hazi

Barbarin hasieratik da Tarima Beltzako zuzendaria. Bi urtez Altsasuko antzerki tallerreko irakaslea izan zen. Bere ikasle-etako batzuk talde amateurrak sortzea proposatu zioten eta halasortu zen Tarima Beltza. Barbarinek aktore-multzoa hazten ikusi du. “Ni, zuzendari gisa, haiekin batera hazi naiz. Haiekin hasi nintzenez muntai gutxi eginak nituen”. Elkarrekin duten konfiantza, elkarren lan egiteko moldearen berri izatea... horiek ekarri ditu urteotako eskarmentuak. Barbarinek dioenez, “onerako eta txarrerako. Bizioak sortzen direlako. Baina oso gustura, egia esan”.

Epeak

Martxoan hasi ziren Tarima Beltzakoak antzezlan berria prestatzen. Maskarekin trebatzen aritu ziren hasieran; “nola begiratu, gorputzarekin emozioak nola adierazi...”. Eta irailaz geroztik astelehenero antzezlanaren entseguak izan dituzte. Eta mustutzea hurbildu aurreko asteetan astelehen eta asteazkenetan elkartu

da taldea.

Tarima Beltzak normalean bere obrak martxoan mustu izan ditu. Oraingoan ilbeltza akaberan izan da mustutzea. Zuzendariaren agendak ekarri du mustutzea orain egitea. Altsasun eta gero, Villafrancan ariko dira otsailaren 20an. Abadiño eta Castro Urdialesko antzerki taldeekin trukeak egingen dituzte. “Eta hortik barna aritzea espero dugu”.

Lazkoz Bertso Egunaren prestaketan



Donostiak Bertso Eguna hartuko du bihar. Eguerdian hasi eta bertso-afari jendetsura arte bertsoa nagusi izanen da Gipuzkoako hiriburuan. Ekitaldi nagusia Kursaalaren izanen da, 18:00etan. Aitziber Garmendiak gidatuko du saioa, eta 10 bertso-

ari izango dira kantuan: Unai Iturriaga, Andoni Egaña, Oihana Iguaran, Etxahun Lekue, Fredi Paia, Xabier Terreros, Jon Maia, Oihana Bartra, Julio Soto eta Agin Laburu. Odei Barroso bertsolariaren 2zio taldea ere zuzenean ariko da.

Bertsolariak antolatzailearen

deia jasotzen duenetik oholztan gaia entzunda kantuan hasi bitartean hartu beharreko erabakiak dira aurtengo ekitaldiaren helduleku. Aitor Mendiluze, Aitor Sarriegi, Eneko Lazkoz eta Urko Casado aritu dira ideia landu eta gaiak prestatzen.

Non erabili

BERGARA CENTRO OPTICO

AGURAIN

Graduatutako eta eguzkitako betaurrekoetan % 10eko deskontua.

JUGA TAILERRAK

ARBIZU

%10eko deskontua mantenu piezetan, %5eko deskontua gurpiletan.

ENERITZ ILEAPAINDEGIA

ETXARRI ARANATZ
%10eko deskontua Schwarzkopf produktuetan.

EKIN

ALTSASU

100€ko erosketengatik 10€ko deskontu balea (beherapenetan izan ezik).

IZASKUN BEUNZA ARKITEKTOA

ALTSASU

%10eko deskontua obra berri eta eraikuntza berri proiektuetan, %20a ziurtagiri energetikoan eta energia fakturaren irakurketa eta analisisa doan.

IOSUNE MARAURI

ALTSASU

Bakarkako sesioetan %5eko deskontua.

KIKI ARGAZKI DENDA

ALTSASU

15x20 cm-ko 8 argazkiko erreportaje batean beste bi argazki opari.

TANIA ARRAINDEGIA

LAKUNTZA

50 €ko gastuarekin, etxeko produktua doan.

LAKUNTZAKO OSTATUA

LAKUNTZA

Menuarekin, kafea edo kopa doan.

www.guaixe.eus-en zerranda osoa ikusgai



BAZKIDETZA 50€
948 564 275

G

asteko >> : eguraldia

ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 53%	euria: 10%	euria: 5%	euria: 8%	euria: 23%	euria: 20%	euria: 23%
Min: 5 Max: 9	Min: 5 Max: 13	Min: 3 Max: 14	Min: 3 Max: 14	Min: 5 Max: 10	Min: 3 Max: 10	Min: 4 Max: 10

: temperatura >>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m ²
Irurtzun	14.5	-1	0.9
Etxarri A.	15.9	-2.9	1.5
Altsasu	14.5	-1.5	1
Aralar	11.6	1.6	0.8
Urbasa	14	-4.5	3.7

: ilargiaren aldia >>

ilbehera	ilberri	ilgora	ilbete
1	8	15	22

EGOKI

VENTANAS PVC LEIHOAK

www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

Acrylcolor

SISTEMA BERRIA

KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

Bazkide zozketa

ILBELTZEKO SARIAK:

1. SARIA:

Ekainberri: 2 sarrera
Artazako Kanpina: %10eko deskontua
Lacturale: esneki lotea
Artium museoa: 2 sarrera
Gaztezulo: 3 hilabetez doan
Magna Gurpea: 2 sarrera

2.,3. ETA 4. SARIA:

Artazako Kanpina: %10
Lacturale: esneki lotea
Artium museoa: 2 sarrera
Gaztezulo: 3 hilabetez doan
Magna Gurpea: 2 sarrera

>> 11 galdera

Ibone Prieto

La Cigüeñako dendaria

Testua: Maider Betelu Ganboa

Iboneri egindako elkarrizketa osoa: www.guaixe.eus.

ZURE MATRIKULAZIO KANPAINARAKO EUSKARRIAK

IRRATI-KUÑAK IRAGARKIAK
BANNERRAK ESKUORRIAK
KARTELAK GUTUNAK

Guaixe

KOMUNIKAZIOA

948 564 275 argi@guaixe.eus

1.Noiz zabaldu zenuen La Cigüeña?
2003ko maiatzean, Otadiko Kristo Deuna kalean. Haur jaioberrien-dako produktuetan hutsunea sumatu nuen. Lanpostua utzi eta denda jarri nuen. Urte onak ziren. 2010ean egungo lokala erosi nuen eta inbertsio handian sartu nintzen.

2.Noiz hasi ziren gauzak okertzen?
2013 urtea trantsiziozkoa izan zen, negozioa behera egiten hasi zelako, harik eta 2014an eta 2015ean kolpe latza jaso arte.

3.Zergatik gertatzen da hau?
Jendeak krisiari egozten dio dena; baina ez da arrazoi bakarra. Errua gurea da, kontsumitzaileena. Nire sektorean, bi arrazoi nagusi daude. Batetik, herentzien kontua dago. Zure lehengusuak... uzten dizkizu haurren gauzak. Krisiaren hasieran jende askok laguntza behar zuten, baina hori orain ohitura bihurtuta. "Do it yourself" edo "zuk egin" mentalitatea gailendu da, birziklatzearena. Nahiz eta jendearen egoera ez horren gaizki egon, ohiturak jarraitzen du.

4.Eta zein da beste arrazoia?
Internet. Nire bezeroa publikogaztea da. Guztia interneten begiratu du, dendara etortzen da produktuak ikustera. Zuk azalpen guztiak ematen dizkiozu, internetek ematen ez dizkionak, eta, ondoren, internetez erosten dute, merkeago. Izan ere, online denda batek ez ditu dendafisiko batek dituen gastu handiak. Ez dira konturatu zure denborak dirua balio duela.

5.Internerako apustua egitea soluzio bat izan daiteke?
Sartu behar dago, eta nik ere egin dut. Web orria daukat eta outleta saltzen dut bertatik, aurreko denboraldietako gauzak, prezio merkeagoetan. Hori oso ongi doa. Baina egungo produktuak online saldu nahiko banitu egunak ez lidake emango: denda atenditu, web orriko eskariak jarraitu, paketeak prestatu, dendan lan egin, etxean... Baina komertzio fisikoaren prezioek ezin dute inoiz online enpresa baten prezio berberak izan, guk gastu gehiago ditugulako. Hortaz, beti egongo da prezio merkeagoak dituen online denda bat.

6.Kontsumitzaileok ohartzen gara honetaz guztiaz?
Kontzientzia gara baina berdina zaigu. Hori da egun bizi garen gizartearen oinarria. Soilik gure arrierreparatu diogu. Produktua merkeago lortzeko egin beharreko guztia egiten dugu. Hori bai, enpresari batek bere lan egitea Txinara eramana nahi badu, merkeago delako, oso gaizki iruditzen zaigu hori.

7.Egongo dira ere komertzio txikietan erosten duten bezeroak.
Bai, bezero onak ditut, baina gutxi dira. Bezero ertain gehiago behar nituzke. Askok txikiak erosten dituzte eta etortzen dira: txupeteak, edalontziak... Azken errekurtsoko dendan bilakatzen zara.

8.Azkenean ixtea erabaki duzu.
Azken unera arte eusten saiatu naiz. Duela bi hilabete produktua erosi nuen, ez dut denda hiltzen utzi.

Elkartarekin borroka egin dut, ekimen asko egin ditugu... baina ezinezkoa izan dut. Orain likidazioan jarri ditut gauzak.

9.Altasuko Dendari Elkartearen egon zara. Garrantzitsua da elkartearen egotea?
Denda zabaldu nuenetik egon naiz elkartearen eta hiru aldiz izan naiz presidentea. Uste dut udal, munitate eta Nafarroako Gobernuaren aurrean ahots bat izan behar dugula. Lan handia egin dugu gure komertzioak sustatzeko: sentsibilizazio kanpainak, zozketak, stock azoka, Nafarroako Gobernuarekin Gabonetako kanpaina sustatzeko iragarkia... Dendariak herrian antolatutako ekitaldiak sustatzen laguntzen dugu eta herriak bizirik mantentzen ditugu. Baina une honetan gauzak oso beltz ikusten ditut.

10.Ez dira garai onak, beraz.
Dendari asko etorri zaizkit euren egoera ez dela batere ona esatera. Drama asko dago, baina badaude gauzak ongi doazkien dendak ere.

11. Eta hau nola konpontzen da?
Hezkuntza eta kontzientziazioa, ez dago besterik. Hornitzaileek produktuak deposituan utziko baligute eta saltzen duguna bakarrik ordainduko bagenu, ez genukeen horrenbesteko stocka izango eta horrek aurrera egiten lagunduko liguke. Egoerari buelta ematea oso zaila ikusten dut. Erosteke modua aldatu da, eta hurrengo belaunaldi eragingo dion aldaketa izango delakoan nago.